

Berrigarra

Ezin pasa tasa

Alkoholemia
kontrola
erroz eta
orrotzagoa



**MECA
BERGARARA**

Millaga 5
BERGARARA
93 76 40 68



Clio berria probatzera
ausartzen bazara, zatoz
MECA BERGARARA





ERNE GAZTE, HEZIBIDEREN

ALDEKO APOSTUA

ERRENTA SEGURUA



HEZIBIDE
Hezkuntza Taldea

ALMEN ESKUALDEKO IKASTOLA ETA

ARRASATEKO IKASTOLA

SAN FRANTZIZKO XABIER - SAN VIATOR

bi aukera anitz bezain osagarri
honako ikasketak egiteko

1 BATXILERGO AUKERA GUZTIAK

- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
 - GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
 - TEKNOLOGIKOA, ESKOLA POLITEKNIKOAK
- ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa. Lanbide Heziketako tailerreko praktikak injinerutzarako konbalidatuta.

2 UNIBERTSITATE IKASKETAK

UNIBERTSITATEKO IKASKETA
GUZTIETARAKO, EGUN DAUDEN
UNIBERTSITATE GUZTIETAN, ETA GOI
MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO
SARBIDEA.

AURREMATRIKULAZIOA: EKAINAREN 1 ETIK 9 RA

MATRIKULAZIOA: UZTAILAREN 1 ETIK 9 RA

3 ETA LANBIDE HEZIKETA

- GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK (ALMEN ikastola)
- IRUDI PERTSONALAREN AHOALKULARITZA (ALMEN ikastola)
- ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA (ALMEN ikastola)
- INGURUGIRO KIMIKA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- INGURUGIRO OSASUNA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- OSASUNGINTZAKO DOKUMENTAZIOA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ERIZAINZAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ILEPAINKETA (ARRASATEko ikastola -San Viator)

"Ate Ireki"
eguna

Bilera
informatiboa

Ordua

Tokia

Kontakturako
pertsonak



ALMEN IKASTOLA	99 / 5 / 19 Almen 16:30	99 / 5 / 19	18:00	Almen	Josebe Murumendiaraz	943 71 49 07
ARRASATEKO IKASTOLA	99 / 5 / 20 San Viator 16:30	99 / 5 / 11	18:00	San F. Xabier	Margari Gorrotxategi	943 79 64 79
		99 / 5 / 20	18:00	San Viator	Idoia Urrutia	943 71 24 90





Aiuntamenturako elekziñuak aurrian darella

Elena Laka / Abokatua

Herrixan ipini dozkuen seña-
liza-ziño dotoria komentatzen ge-
bizela, auzoko batek komenta-
riko gaiztotxo bat egin zoztan juan zan
egunian: elekziñuak datoz da... Nik ez
dakit seña-ziak horretxegatik ipiñi di-
ttuzten ala ez, baña egixa da azkeneko
urtietan elekziño bezperetan kalian
gauza barrixak ikusteko ohitturia hartu
dogula. Entenditzen dot sarritan neke-
za ingo jakela Aiuntamentuko gober-
nu-batzordian daren partiduei, beraiei
esker herrixan zer ein dan ta zer ez dan
ein esplikatzia. Batez be horrek kalian
proiekziño zuzenik euki ez dabenian,
adibidez, obra publiko handirik ein ez
danian.

Nik dakidala, oin amaitzeko dauan
legealdixan ez da gauza ikusgarririk ein
kalian, ez behintzat normalian agintari-
xei gustatzen jakezen polideportiborik,
kamiñorik, eskola barririk edo zahar-
ren erresidentziarik. Esango doskue
guk zuzenian ikusten ez doguzen beste
mila gauza ein dittuztela, ez dakit zen-
bateko dirutzak banatu dittuztela eta
abar. Baña horrek ez dauka hainbeste-
ko lustrerik.

Dana dala, ez dot pentsatzen garai
txarra danik Aiuntamenturako presen-
tatzen direnei Errege Magoen kartia
idazteko, jakin daixen herri honetan
botua ematen dogunok zeren faltan ga-
ren. Hementxe neria:

“Aiuntamentuko agintari jaun-an-
dreak: oingo legealdixan be ez naiz ho-
rren txarto portau, tokau jatanian in-
puestuak pagatu dittut, bihar bada mul-
taren bat edo eukiko dot pendiente,
baina txikikerixa horregatik konpondu-
ko gara. Pentsatzen dotenez herrittar
ona edo izan naizela, gustatuko jatan
horrelako hauek ekartzia: zakarrontzi

*“Esango doskue zuzenian
ikusten ez doguzen beste
mila gauza ein dittuztela,
ez dakit zenbateko dirutzak
banatu dittuztela eta abar.
Baña horrek ez dauka
hainbesteko lustrerik”*

batzuk Gorla ingururako, ziburuetako
alde hartan bat be ez dao ta; garbiketa-
brigadatxo bat San Martzial urte osuan
garbixa egoteko; zakarretako kamioia
sarrixago pasatzia, batez be udan astian
hiru bider gitxitxo baita (ikusten dozue
fijaziñua daukadala basuriakin). Apar-
kaleku eskasiaren gaixan pazientzia ez
den beste urtenbide bat emango baze-
nute... garajerik ez daukagunok asper-
tu samar gare ezin aparkatziakin. Ez li-
tzake sobran egongo, ezta, etxebizitzen
gañian zeozer eittia: etxebizitza asko
hutsik dare, barrixak oso karuak die eta
jende asko dago etxia erosi ezinda.
Protekziño ofizialekuak edo. Gaztiak,
entzun dotenez, lokal eske dabiz. Bue-
no, ba horra hor erantzuna eman bihar
jakon arazo bat. Badakigu zaharrak
baino zaratatsugoak dirala, baina za-
harrak lokal ederra baldin badauke,
hor arbol artian, gaztiek zergatik ezer
barik? Umiendako aterpedun jolasle-
kuak be ondo eongo lirake, eurixa da-
nian ezin dabe ziburuetan ibili eta.

Zeuen gauza inportante hoiien ar-
tian txikikerixa hauendako be lekua to-
pauko dozuelakoan, eskerrik asko”. **B**

barruan



Antonio Perla

Historiagilea

*“Alemanian ere
interes haundia piztu
da Agirrebeña etxeko
zeramika plakekiko”*

8.



Jon Andueza

Realeko jokalaria

*“Gogorra izan da jube-
nilen finalera iristea,
Athletic eta Antiguoko
oso gertu genituen”*

21.



Joxepi Larrañaga

Oilagorrako bazkidea

*“Oilagorrako lehen
emakume bazkidia
izan naiz eta guztiak
oso ondo portatu die”*

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1889. Maiatzaren 19an, orain dela 100 urte, Don Pedro Garitano apaiza jaio zen Zubietan. Don Pedro oso ezaguna zen Bergaran. Urduñan jesuitekin ikasi zuen eta, ondoren, Comillasen. Meza berria, ostera, Santa Marinar eman zuen 1927an. Bestalde, Bizkaia eta Kantabria arteko mugan dagoen La Calera izan zen bere lehen destinoa eta 1930ean Bergarara itzuli zen. 1992ko abenduaren 23an hil zen.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1260. Maiatzaren 15ean Espainiako errege Alfontso X.a Jakitunak Arrasateri Mont-Dragon izena jarri zion. **1890.** Maiatzaren 12an greba egin zuten Bilbo inguruko meategietan. Lan ordu eskaria: egunero 10-11 ordu.

MUNDUAN GERTATUA

1985. Maiatzaren 11n 52 lagun hil ziren Ingalaterran, Bradford City futbol zelaia su hartu ostean.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 7

6-10-22-31-41-44 (osag.17/itz.6)

Astelehena 10

2-15-23-34-35-42 (osag 12/itz.9)

Martitzena 11

3-4-10-22-32-40 (osag.27/itz.9)

Eguaztena 12

13-14-31-33-34-36 (osag.2/itz.4)

PRIMITIVA

Zapatua 8

4-5-7-31-38-44 (osag.11/itz.2)

Domeka 9 Saritzarra

5-13-24-39-43-45 (osag.20/itz.0)

ONCE

Eguakitza 7: 31.811 (053 seriea)


Astelehena 10: 59.451

Martitzena 11: 82.436

Eguaztena 12: 71.950





Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Eguraldiak okerrera egingo du astebukaeran. Zapatuan eta domekan hodeiak nagusituko zaizkigu eta tarteka marteka euria eta ekaitza egin dezake. Tenperaturak behera egingo du eta haizeak iparmendebaldetik joko du.

Ilargiaren aldiak

	Ilbehera: maiatzak 8
	Ilberri: maiatzak 15
	Ilgora: maiatzak 22
	Ilbete: maiatzak 30

Eguzkia

Domeka, maiatzak 16



Sortu: 06:59



Gorde: 21:27

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 6	28	8	1,1
Eguakitza 7	24	13	-
Zapatua 8	24	9	-
Domeka 9	25	6	-
Astelehena 10	24	10	-
Martitzena 11	30	11	-
Eguaztena 12	30	10	-

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Artobero usaiñak kendu

Fanafarreriarako gogoak kendu.

- Ik segi ain aozabal da baten batek kendukosk artobero usaiñok.



JOSU OKINA



Maite Elortza
14an 5 urte. Urte askotarako eta muxu handi bat! Iosu eta etxeokak.



Jose M. Aranburu
Maiatzaren 15ean urtebetetzea. Urte askotarako! Etxeokak.



Ion Garitano
Maiatzaren 16an urtebetetzea. Urte askotarako! Familia eta koadrila.



Ekaitz Regorigo
Maiatzaren 14an 7 urte. Urte askotarako! Idoia eta familia.



Maider Beristain
Maiatzaren 15ean 22 urte. Urte askotarako! Maider.



Gema Fernandez
Maiatzaren 14an 20 urte. Urte askotarako! Koadrila.

Farmaziak

Eguakitza 14:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Zapatua 15:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Domeka 16:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Astelehena 17:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Martitzena 18:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguaztena 19:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguena 20:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 16: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzailak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
GARRAIOAK	
Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68
BESTELAKOAK	
Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

URTEURRENA

Marcelino
Moreno Gonzalez

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 16,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Beatriz
Elguero Losada

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 16,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Jose
Aranburu Insausti

Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 16,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

zorion agurrak



Iker Gorriti
Maiatzaren 18an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Josu Gorriti
Maiatzaren 18an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Axier Mujika
Maiatzaren 15ean
7 urte. Urte
askotarako! Andoni
eta gurasoak



Ander Franco
Maiatzaren 16an
7 urte. Urte
askotarako! Etxeko-
ak eta Mireia.



Karnele Unibesalgo
19an 3 urte. Urte
askotarako! Etxeko-
ak, bereziki Beñat.



Aitor Iruin
Maiatzaren 14an
8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Leire.



Auren Beistegi
Maiatzaren 18an
11 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ane Etxaniz
Maiatzaren 18an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familia eta koadrila.



Maika Gallastegi
Maiatzaren 14an
3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ion Mikel Aiausti
Maiatzaren 17an
6 urte.
Urte askotarako!
Familia.



Iزارo Fernandez
Maiatzaren 17an
3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.

*Datorren asteko
alean ez da
zorion agurrak
argitaratuko.
Hurrengoan,
MAIATZAREN
21a eta
EKAINAREN 3a
bitartekoen
zorion agurrak
argitaratuko dira.*

■ jaiotakoak

BERGARA

Ainhua Pera Etxeberria

Apirilak 30

Gorka Ros Marauri

Maiatzak 5

ANTZUOLA

Aritz Etxabe Garitano

Maiatzak 11

■ hildakoak

BERGARA

Francisco Perez Uriguena

Maiatzak 10, 81 urte

Jabier Errarte Alberdi

Maiatzak 11, 27 urte

ANTZUOLA

Marcelino Garmendia Astarloa

Maiatzak 7

ESKER ONA

Teresa
Luarizaristi Iñarra

Bergaran hil zen
1999ko apirilaren 23an,
79 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Marcelino
Garmendia Astarloa

Bergaran hil zen 1999ko maiatzaren 7an,
86 urte zituela.

*Zure irrifarra eta kemena gogoratzeak
ematen digu guri bizi-poza. Muxu bat.*



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali
zenizkiguteno eskerrik asko sendikoen izenean.*

ANTZERKIA

► **Oliver!** musikala. Bihar, zapatua, 19:00etan eta 22:30etan eta domekan 19:00etan, Mariaren Lagundian. Sarrerek Kultur Etxean, Musika Eskolan eta Zer Nai tabernan.

MUSIKA

► **EH Sukarra eta Tubabu** taldeak bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan. Bestalde, **7 notas 7 colores** taldearen kontzertua bertan behera geratu da.

ERAKUSKETAK

► **Simon Arrieta** zeramika taldearen erakusketa domekara arte Kultur Etxean.

► **Iban Del Camporen "Ametsetan esnatuta"** argazki erakusketa Nahikarin.

LEHIAKETAK

► **Kirol argazkien IX. Lehiaketa.** Zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak Udaleko Kirol Zerbitzuan jasoko dira ekainaren 23ra arte. Argibideak: 943 76 30 90 (Benito).

IKASTAROAK

► **Islada** bideo tailerrak antolatutako **bideo sarrera ikas-**

JAIK

Euskal jaia


Noiz: domekan, 10:30etatik aurrera

Domekan Haurren Euskal Jaiaren 26. edizioa ospatuko da Bergaran. Aurten 8 urtetik 14 urtera bitarteko 800 neska-mutiko etorriko direla espero da. Aranzadi Ikastolako dantza taldea eta Xamatx aritu dira aurten ere antolatzaile lanetan eta, txaranga, dultzainero eta trikitilariekin batera, 11 talde izan dira domekako jaialdian: Bera Bidasoa, Altsasu, Ereintza (Orereta), Lurra (Urretxu), Azkoitia, Lore Gazteak eta Txikitxu (Arrasate), Loramendi (Aretxabaleta), Gorosarri (Eskoriatza) eta Bergarako Aranzadi eta San Martin taldeak. Xamatzekoek San Martin ikastetxean klaseak emateari ekin diote aurten eta 25 laguneko dantza taldea osatu da. Aranzadi Ikastolako taldean, berriz, 80 haur inguru dabilta.

Programari dagokionez, goizeko 10:30etan talde guztiak Seminarioan bilduko dira eta jarraian talde guztietako txistulariek diana joko dute herriko kaleetan zehar. San Martin plazan, 11:30etan, alkate eta alkatesa txikien ongi-etorria egingo da eta ondoren taldeak kalez kale izango dira dantzan. Arratsaldean, berriz, 17:30etan dantzen alardea egingo da: mu-

tilek Jorrai dantza, Txakarrankoa eta Banakoa eskainiko dituzte eta neskek, aldiz, Makil txiki, Gipuzkoako zinta dantza eta Arku dantza. Ondoren, neskek eta mutiak elkarrekin arituko dira Ikurrin dantza, Zapatain dantza eta Txulalai dantzatzuz eta bukatzeko Zazpi jauzi eta Fandango eta Arin-arina izango dira.

Aurten ere Bergarako elkarteek euren laguntza eman dute haurrak bazkaltzera eramateko orduan eta gastuak konpartituko badituzte ere, etxeetan bazkaltzen ez duten dantzariak herriko bost elkartetan banatuko dira.



Domekan 800 bat dantzari etorriko dira.

taroa maiatzaren 31tik uztailaren 1era bitartean, astelehen, martitzen eta eguenetan 17:00etatik 20:00etara Kultur Etxean. Plaza mugatuak dira. 8.000 pezeta (4.000 langabe-tuentzat). Argibide gehiago 943 77 91 58 telefonoan (Amaia Labaien).

DEIAK

► **EAJk eta EAK** bulegoa zabaldu dute Batzokian eta Alkartetxean **botoa korreoz** eman nahi dutenentzat. Batzokiko ordutegia: astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta

zapatuetan 11:30etatik 13:30etara; Alkartetxekoa: 17:00etatik 19:30etara astegunetan eta 11:00etatik 12:30etara zapatu goizetan.

► **Botoa korreoz** eman nahi dutenentzat bulegoa zabaldu dute **EHK** Irizarreko lokalean.

PANA DE ROKUA
TAETE XEAL

Asteburuetan bertako
babak eta saibeskia

SALBADOR 10 **ELGETA**
Tf. 943 76 82 73

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2

 **ARRI**

Industri
Hornidura

Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 670 31 92 44.

► **Komite Internazionalis-tak.** Martitzenean, hilak 18, brigaden aurkezpena egingo da 19:30etan Kultur Etxean.

► **Herri bazkaria** Pazkuetak martitzenean. Txartelak (1.300 pezeta) Ariznoa, Kortazar eta Arrano tabernetan edo Jardun elkarteal salgai.

► **Euskal Mendizale Federakundearen 75. urteurrena.** Astelehenean, 19:15etan, **"Patagoniako Payne dorreak"** diapositiba emanaldia Elgetako Udaletxean; eguaztenean, hilak 19, **"Alpeetako travesia mendiko eskiekin"** Belen Eguzkitzaren eskutik 19:00etan Elgetako Udaletxean eta eguakitzean, ordu eta toki berean, Ricardo Arregi medikuak **"Izozteen prebentzioa eta tratamendua"** gaiari buruz jardungo du.

► **Bruce Springsteenek** ekainaren 5ean Zaragozan emango duen kontzertura joateko autobusa antolatuta du Jam-ek. Autobusa eta sarrera 8.500 pezetan. 943 76 35 81.

► **Gipuzkoako eskolarteko XIX. Bertsolari Txapelketa.** Azken kanporaketa Arrasateko San Viator Ikastolan, maiatzaren 21ean, 15:00etan.

► **Hezibide.** Almen Ikastolaren ate irekizko jardunaldia eguaztenean, hilak 19, 16:30etatik aurrera. Bilera informatiboa 18:00etan. Eguenean, ate irekizko jardun-

naldia ordu berean San Viatorren, Arrasaten.

KINTADAK

► **1942an jaiotako en afaria** maiatzaren 29an Azepeixi jate-txean, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan meza izango da Santa Marina elizan eta afal aurretik taldeko argazkia aterako da. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Mizpildin, Edel-en, Lonbiden edo Azepeixi jate-txean egin daiteke, maiatzaren 26a baino lehen.

► **1958an jaiotako en afaria** ekainaren 12an, 21:30etan Antxonin. Izen-ematea Antxonin eta Intxortan.

JAIK

► **Toki Ederreko jaiak** aste-buruan: gaur, **eguakitzia**, **Luhartz** taldearekin dantzaldia 23:00etan eta jarraian berakatz zopak. Bihar, **zapateria**, futbito partidua 10:00etan, 11:00etan haurrentzako ginkana, 16:00etan mus txapelketa Zuhaitzi tabernan, 17:00etan kukañak, 19:00etan buruhandia eta erraldoiak eta 20:00etan Musika Eskolak alaitutako tanborrada. 22:30etan suzko erroberak eta **La Parranda** kantu mexikarrak eskaintzen dituen taldearekin dantzaldia. **Domekan**, hilak 16, **Aritzeta** eta **Xamatzen** emanaldia 12:00etan, jubilatuentzako luntxa ordu berean Aizepen eta 14:30etan herri bazkaria.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

The faculty
Eguakitzia: 22:30.
Zapateria: 17:00, 19:30, 22:30.

Dioses y monstruos
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Amigos y vecinos
Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Lock & stock
Eguakitzia: 22:00.

La novia de Chucky
Zapateria: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Amaia

Fuego
Eguena, zine-kluba: 21:30.

EIBAR. Unzaga

Asesinato en 8 mm.

Eguakitzia: 22:15.

Zapateria: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztenean, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

La vida es bella

Eguakitzia: 22:15.

Zapateria: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Hilary y Jackie

Zapateria: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Bichos

Domeka: 17:00.

Normal life

Eguena, zine-kluba: 20:15.

THE FACULTY

Zuzendaria: Robert Rodriguez.

Aktoreak: Jordana Brewster, Clea Duvall, Laura Harris.

Robert Rodriguez zuzendaria-riak (*El mariachi*) beldu- rrezko istorioa errodatu du oraingoan. Harrington Hich eskolan era guztietako per- tsonajeak aurki daitezke: bakartiak, liderrak direnak edo ikasle azkarrak ere bai. Ikasleek ulertzen ez dieten gurasoekin eta irakasleekin borrokatu beharko dute...

DIOSES Y MONSTRUOS

Zuzendaria: Bill Condon.

Aktoreak: Ian McKellen, Brendan Fraser, Lynn Redgrave.

Azken Donostiako Zinemaldian Epaimahaiaren Sari Berezia eta aktore one- nari zegokiona eskuratu zituen. Frankenstein-i buruzko filmeak egin zituen James Whale zuzendariaren azken egunak kontatzen zaizkigu. Bere sexu joera ezkututzen ez duen Whalek harreman berezia izango du etxeko lorazainarekin...

AMIGOS Y VECINOS

Zuzendaria: Neil Labute.

Aktoreak: Amy Brenneman, Aaron Eckhart, Catherine Keener.

Neil Labute-ren azken filme- ak Donostiako Zinemaldia zabaltzeko ohorea izan zuen, kritika onak jasoz. Emakumeen eta gizonen arteko gaurko harremanak aztertu nahirik, protagonis- ten arteko elkarriketak dira filmeko gauzarik onena.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Aprobetxatu oporrak
GIDA BAIMENA
ateratzeko

**ARRAÑAGA**
A U T O E S K O L A


Izena ematean
%10EKO BEHERAPENA
Gaszte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63

Antonio Perla historiagile donostiarrak idatzitako "Historia de una estufa. Las placas cerámicas del XVI en la casa Aguirrebeña de Bergara" liburua aurkezteko zen gaur, eguakitza, 19:00etan Udaletxean. Perlak Aguirrebeña etxe-ko plaka zeramikoen ibilbidea aztertu du azken bi urteotan.

ANTONIO PERLA
Historiagilea

"Alemanian ere interes haundia piztu da Aguirrebeña etxe-ko zeramika plakekiko"



Antonio Perla historiagile donostiarra.

G. Zela suertatu zitzaizun lan hau egiteko aukera?

E. Estatu espainola, Portugal eta Frantziako kideak biltzen dituen zeramologia elkarte bateko partaidea naiz eta, 1993an Ubedan egin genuen kongresuan, Euskal Eltzegintzako Museoko zuzendaria den Blanca Gomez de Segurak Batzokian zeuden Aguirrebeña etxe-ko hiru plaka solte ekarri zizkigun. Etxea berrizatzeko ari zirenez, presazko txosten bat landu nuen Bergarako Udalerako, alemaniar estufa bateko plakak izan zitezkeela ohartaraziz. Udalak azterketa sakonago bat agindu zidan eta dokumentazioa pilatzen zihonez, eta plaketan elementu ikonografikoak ikusten zirenez, liburua egiteko ideia sortu zen.

G. Zein izan da lanaren helburua?

E. Ez ditut plakak objektu bezala bakarrik aztertu baizik eta nola heldu ziren Bergarara edo bere jauregiko fatxadan nor jarri zituen jakitzeko ikerketak egin ditut. Jauregia Aguirrebeña etxea izenarekin ezagutzen da baina jatorrian Marutegiko jauregia zen, Aguirrebeña izena XVIII. mendekoa baita. Joan de Marutegi Azkaratetarren etxe-ko zen eta Aguirrebeñatarraren eta Azkaratetarren armariak oso antzekoak dira. Fatxadan dagoen armaria Azkarateta-

rena da eta armari hori 1700. urtean Quito idatzitako dokumentu bati esker identifikatzea lortu nuen. Marutegi nor zen jakiteko artxibo mordera kontsultatu ditut, Archivo Historico Nacional eta Archivo de Indias delakoak tartean. Joan de Marutegi historiako orrialdeetan gutxi azaltzen da baina boterearekin harre-

"Marutegik Carlos V. arekin zuen harremanagatik, bere jauregiko fatxadan haren imajina jartzeko pribilegiua izan zuela uste dugu"

mana zuen gizona zela konprobatu izan dut. Jendeak dirua eta mesedeak zor zizkion.

G. Zeintzuk dira lanaren ondorio nagusiak?

E. Hasiara batean Estatuan ezagutzen zen lehendabiziko estufa Aguirrebeña-ko zen (egindako ikerketen ondoren beste bi estufa posibleren berri ere badut orain) eta oso zaila litzateke honen moduko beste kasuren bat egotea; alde batetik estufa plaka bilduma ederra da (58 piezez osatua) eta oso osorik irakur daitekeen mezu ikonografikoa dauka, Carlos V. ari buruzkoa. Alemaniako Nurenberg hirian XVI. mendearen lehen erdian egindako estufa baten osagarriak dira. Nurenberge interes haundia piztu da pieza hauekiko, beraiek ezagutzen dituztenekin konparatuz berezitasun batzuk dituztelako hemengo piezek. Objektu hauen mugimendua eta komertzializazioa nolakoa zen jakiteko balio izan du ikerketak.

G. Zela heldu ziren pieza hauek Bergarara?

E. Ez dakigu. Joan de Marutegi Azkaratetarren etxe-ko zen, eta Carlos V. arekin eta Felipe II. arekin hartu-eman estua izan zuen. 1541. urtean maiorazko buru Marutegi zen eta jauregiko elementu sinbolikotzat estufako plakak jarri zituen (plakek ez zuten estufatarako erabilpenik izan). Bestalde, programa ikonografikoa oso konplexua da eta Carlos V. arekin harremana zuen norbaitek enkargatutakoa da. Marutegik Carlos V. arekin zuen harremana zela medio, bere jauregiko fatxadan enperadorearen imajina jartzeko pribilegiua eman zitzaiola uste dugu. Istorio bitxi da eta, egia esateko, asko gozatu dut lan hau egiten. **B**

Jaietako zekorketa eta zezen festak aurkeztu dituzte antolatzaileek

Bergarako Zezenzaleak taldeak jaietarako antolatu dituen zezen festak eta sokamuturrak aurkeztu zituen joan zen zapatuan Gure Ametsa elkartearen.

Horrez gain, Pazkuetako zekorketa iragartzeko kale-ratu duten karte-leko irudia ilustratzen duen pintura-lanaren egileari saria eman zien Zezenzaleak taldekoek. Mikel Araiztegi pintore bergararrak irabazi du aurtun Abdon Juaristi pintura lehiaketa eta 150.000 pezetako saria eta plaka oroigarri bat jaso zuen.

Aurtengo zekorketan Salamançako Jose Luis Rodriguez Lopez "Valrubio" ganadutegiaren zekorrek txuliatuko dituzte Javier Sanchez "Valverde" salamançarrak eta Omar Guerra jaendarrak. Sobresalientea Areetako Fernando Osés izango da. Javier Sanchez Salamançako eskolako onena da gaur egun. Bestalde, Jose Maria Rekondo donostiarra izan da Jaengo Omar Guerraren aitaponteko. Txuliatzaile izandakoa, orain dela bi urte omendu zuen Zezenzaleak taldeak eta, harez gero, bien arteko harremanak oso onak dira.



Zezenzaleak taldekoek Gure Ametsa elkartearen egin zuten aurkezpen ekitaldia.

Zekorketa maiatzaren 23an, domekan, 18:00etan Ibargarain jarritako zezen plazan izango da.

KAXOITIK ATERATZEA

Espektakulua berritze aldera, eta Jaurlaritzaren zezen festei buruzko arautegiak hala aginduta, zekorrek bezperan ekarriko dituzte aurtun Bergarako zezen plaza portatilerara. Honela, bezperan, zekorrek kaxoitik ateratzea egingo dute. Zezenak gustuko dituztenentzat oso espektakulu polita eida. Zapatuan, 19:00etan,

biharamonean txuliatuko dituzten zekorrek banabanaban aterako dituzte plazara. Ikuskizun honetarako, zein astelehen eta martitzen arratsaldeetan antolatuko diren zezen jaietarako sarre-rak 200 pezetan salduko dira; baita sokamuturraren osteko enbolatuetarako ere. Domekako zekorketarako sarre-rak, berriz, 2.200 eta 1.700 pezetan salduko dira, aukeratzen den tokiaren arabera. Aurtengo zekorketa Fermin Salaberria talde-idea zenari eskaini nahi diote Zezenzaleak taldekoek.

JOAN ETA ETORRIA SOKAMUTURRAN

Beheko Estazioan Ertzaintzaren komisaldegia egiten ari direnez, zezen plaza tokiz aldatu behar izan dute aurtun. Ninika loradendaren aurrealdean dagoen aparkalekuan jarri dute. Aldaketa honek eraginda, sokamuturra zezen plazatik irtengo da eta Gasparrenerainoko bidea egin ostean, handik berriz ere zezen plazara itzuliko dira zekorrek. Sokamuturrak goizeko 9etan hasiko dira; ondoren, enbolatuak izango dira. **B**

ARREGI

Eraikuntza materialak

Biltegia Tellerian, Labegaraian.
Tf. 943 76 27 93

LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



AGOITZ

Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47



EAJk eta Eak Udal hauteskundeetarako aurkeztu duen hautagaien zerrenda bateratua.

Beste lau urtez alkatetzari eustea EAJ eta EAren asmoa

EAJk eta Eak Udal hauteskundeetarako osatu duten zerrenda bateratua aurkeztu zuten joan zen martitzenean Victoriano Gallastegi alkategaiak eta Kontxi Irizar zerrendako bigarrenak. Kontxi Irizarrek (EA), orain dela lau urte oposizioan eman zituen urteak ekarri zituen gogora eta erronka berri hau atseginagoa egiten zitzaiola esan zuen. Udaltxera bergararren alde lan egiteko itzultzen zela adierazi zuen.

Victoriano Gallastegik, bestalde, datorren legealdi-

ra begira EAJ eta EAK presatatu duten programaren aurrerapen laburra egin zuen arloz-arlo. Bakea lortzeko bere eskuan dagoen guztia egiteko prest azaldu zen eta, bestalde, azken lau urteotan Bergaran langabezia tasa hiru puntutan gutxitu dela azpimarratu zuen. Zentzu honetan, etorkizunean gaur egungo langabezia tasa murrizteko (%5,5) itxaropentsu agertu zen eta, horretarako, oso garrantzitsutzat eman zituen Industrialdearen eta azpiegitura berrien garapenak.

Horrez gain, auzo baikoitzean urtero inbertsio garrantzitsu bat egiteko eta euskaren aldeko ekimenak bultzatzeko prest azaldu zen. Era berean, Agorrosingo kirol gunea berrizteko egitasmoak bultzatuko zirela eta Arrizuriaga parkean musikarako auditoriuma eraikiko zirela ere aurreratu zuen.

Azkenik, gazteentzako lokalen arazoari irtenbidea aurkitzeko eta Gazte lokalaren plataformako kideekin negoziatzeko prest azaldu zen.

HAUTAGAIEN ZERRENDA

Martitzenean amaitzen zen ekainaren 13ko hauteskundeetarako zerrendak aurkezteko epea. Udal hauteskundeetan Bergaran aurkezten diren lau zerrendak hauek dira.

EAJ-EA

Victoriano Gallastegi (EAJ), Kontxi Irizar (EA), Koldo Perreira (EAJ), Juanjo Arrieta (Independiente), Jose Antonio Etxeberria (EA), Nere Amaia Zabala (EAJ), Iñigo Alberdi (Ind), Felipe Altuna (Ind), Xabier Zabaleta (EAJ), Juan Garitano (EA), Iñaki Arrondo (EAJ), Jesus Mari Elorza (EA), Luis Abajo (EAJ), Arantxa Ibarzabal (EAJ), Antonio Herzog (Ind), German Muruamendi (EAJ), Itziar Zabala (EAJ), Aintzane Ugalde (EAJ), Javier Mujika (EAJ), Javier Badiola (EA).

EH

Jesus Mari Garitano, Maider Larrañaga, Mikel Eguren, Aitor Goiti, Yolanda Juaristi, Aitor Aranzabal, Martin Guridi, Amaia Beitia, Iñaki Ibabe, Xabier Arregi "Txapi", Jose Luis Loidi "Rosli", Izarra Arriaran, Iñaki Etxaniz, Josune Lizarralde, Fernando Albeniz, Leonardo Laskurain, Saioa Elizalde, Jose Ramon Sebal, Ainhoa Agirreazaldegia, Aitor Arakistain "Popi".
Batzar Nagusietarako: Balentin Gabilondo (3), Jesus Mari Garitano (16).



**Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.**

BERGARA ☎ 943 76 58 86



**GAZTELU
BURDINAKI DENDA**

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

PSE-EE

Alvaro Esparza, Javier Zendoia, Alfonso Zafra, Francisco Javier Garai, Maria Begoña Urbistondo, Agustin Sanchez, Junkal Orbea, Antonio Sierra, Agustin Reyes, Rafael Morales, Yolanda Mendes, Juan Pineda, Maria Dolores Alfonso, Francisco Morales, Esperanza Quicios, Jose Gonzalez, Julia Maria Gomez, Ciriaca Navas Laskurain, Lucio, Sanchez-Rico, Jose Morales.

IU-EB

Andrés Díez, Juan Manuel García, Isabel Salud, Carmen Zabaleta, Amando Blanco, Teodora Delgado, Eulogio Díez, Ana María González, Pedro Rodríguez Flores, Miguel Ángel Hernández, María Jesús Zabala, Jose María Korta, Inmaculada Calvo, Milagros Mendizabal, Juan Carlos Calvo, Beatriz Oíartzabal, Enrique Fernández, Maite Hernández, Francisco Javier García, Enrique Fernández.

Batzar Nagusietarako: Isabel Salud (1), Andres Díez (3), Juan Manuel García (8).

PP

Jose Luis Santiago, Jose Luis Rodríguez, Angeles Garcia, J. A. Martinez, Antonio Garcia, Rosario Gonzalez, Angela Arrizurieta, Oscar Bruña, Milagros Oria, Jesus Maria Semper, Isabel Melgosa, Tomás Solanas, Concepcion Sanchez, Jorge Jimenez, Maria Luisa Soria, Jose Solchaga, Macarena Olivencia, Carmen Lopez, Mateo Saavedra.



Bergarako Euskal Herritarrok-eko hautagaiak eta babesak eman dieten bergararrak.

Eskaintza zabal eta anitzena luzatzea da EHren helburua


Bergarako herriari eskaintza zabal eta anitzena luzatzea izan da EHren helburu nagusia hauteskunde-erako zerrenda eta programa osatzerako orduan. Horretarako, HBko, Zutik-eko eta ezkertiarren diren zenbait kide bergararrek lan handia egin dutela aurreratu zuen Jesus Mari Garitanok EHren alkategaiak. "Badakigu zaila dela herritar guztien iritzi eta asmoak programa batean biltzea eta horregatik garbi daukagu zabaltasuna eta imaginazioa izango direla gure politika-

ren euskarri nagusiak" esan zuen. Herritarren eskaerei erantzuteko beti prest egongo direla gaineratu zuen. HBren zerrendaburuaren esanetan, "datozen lau urtetan Bergarari eta bere biztanleei haize berri eta dinamikoak ematea da asmoa".

Zerrenda osatzerakoan, besteak beste, honako irizpide hauek izan dituzte kontuan: hautagai guztiak euskaldunak izatea; zerrenda politikatik, sindikalgitatik eta kolektibo soziale-tatik irteerako lagunez osatu dute; gehiengoaren isla-

da izatea; oreka mantentzea ateratzen eta sartzen diren zinegotzien artean; gizon eta emakumeen arteko presentzia ahalik eta orekatuena izaten ahalegintzea eta gazteen sarrera bultzatzea.

EHren hauteskunde-programa bederatzari arlotan biltzen da: udalgintza, sozioekonomia, gazteria, lurralde antolaketa, ongizatea, euskara, kultura, irakaskuntza eta auzoak. Herri programa osatzeko, jardunaldi zabala antolatu dute bihar-ko, zapatu-ko, Miguel Al-tuna zaharrean, 10etan.



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31

Tf. 943 76 20 02

BERGARA

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK

MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA

IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

Berrigara

367 zenbakia.
1999ko maiatzaren 14a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkartea

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate,
Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarría.

Testuen zuzenketa:
Estueen Plazaola, Alex Labaien,
Mirari Alberdi, Maripi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkorobereizbar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.
Komikiak: Bittor Rodriguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:
Juan Martín Eleixpuru, Josu Okina,
Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop.
Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

BOLONDRES LANA BUKATUTA DAGO

Nire denbora libreari 30 segundu eta gehiago lapurtu dizkiot gutun hau idazteko eta zera adierazi nahi dut: bolondres izatea aspaldi bukatu zen edo, behintzat, hori da nire uste pertsonala eta nire erantzun-galdera zera da: zenbat balio du norberaren denbora libreak? Kirolaren munduan, orain dela hogeit hamar urte ez zeuden hainbeste udal patronatu, udal kirol zerbitzu, titulodun edo INEF eta IVEF karre-eragindako teknikari, ez jauna!. Ia denok "Por amor al arte" egiten genuen kirolaren alde lan.

Baina, orain, karrera bukatu ondoren, lizentziatuek lantoki bat bilatu behar dute eta zuzendaritza, koordinazio edo antolaketa lanetan bakarrik murgiltzen dira (agian kirol alternatibo bat erakusten edo mantenimendu gimnasia ematen). Astelehenerik ostiralera edo, larunbat goizean kantxaren batean agertzearekin amaitzen da beraien lana.

Baina benetako kirola, ondoren hasten da. Zein doa taldearekin kompetiziora larunbat arratsaldean eta igande goizean? Noski, joan da dila "El boluntario txotxolo de turno". Jar dezala bere autoa eta ez ditzala ahaztu paperak, dortsalak, fitxak, janari-edariak e.a.

Jakina, kirol-teknikariak 5 urteko karrera egin dute eta lanpostua eta soldata behar dituzte beraien lanbidea delako. Baina, zenbat balio du norberaren denbora libreak? Zenbat balio du kirol munduari dedikazio osoa emateak?

Dedikatu ote diote teknikariak 30 segundu pentsatzeari norbera-

ren denbora librean kirolean sartzean, urtean 365 egun behar direla eta 8.760 ordu sartu behar direla, eta horrek bizitza osoa suposatzen duela? Familia alde batera utzi, emaztea, semeak, telefonoa eta auttoa kirolaren zerbitzura. Teknikariak beraien soldata irabazten dute, bai eta ondo irabazita; baina, zenbat diru kobratzen dute bolondresak? Bolondresaren lanak erabat "boluntarioa" izan behar du, baina gizarteak dedikazio osoa eskatzen dio. Zer inkongruentzia. Non daude gizarte baloreak? Zein ez da etikoa? Nik, boluntariotza egingo nuke elizan laguntzen edo edozein ONGtan, baina kirol munduan so-sik kobratu gabe..., ezta pentsatu ere! Hori bukatu zen.

Zergatik ez da baloratzen behar den moduan bolondresaren lana? Zoritxarrez, gizarte honetan edozein gauza egiteagatik ordaindu egin behar da, baita kirola egiteagatik ere, eta gustatzen ez bazai-gu ere, dirua da mundua mugitzen duena. Hori, onartzen ez bada hemendik gutxira teknikariak eta "ero" apur batzuk besterik ez dira geldituko kirolaren munduan.

Bukatzeko, txiste txar bat. Soldadutzan, sargento batek tropari: "Habee quién ee voluntario pa fre-gá..., Tu mismo", gizarajo bat sein-nalatu. Ba ez. Ez, jauna, horrela behintzat ez.

Jaime Gartzia

PRESOAK EUSKAL HERRIRA

Bergarako jaiak gainean ditugun honetan, Euskal Presoak Euskal Herrira taldetik eskaera berezi bat egin nahi dizuegu. Gabonetan

herriko balkoi guztiak preso-en hutsunea salatzen zuten kartelez bete nahi izan genituen, eta orduko erantzuna eskertu genuen arren, ez zela nahikoa izan esan behar dugu. Orain herriko festak datoz, baina ez dituzte familia eta kuadrila guz-tiek berdin ospatuko. Batzuen oroitzapena gertuan eduki ezin di-tuzten lagun eta senitartekoekin egongo da. Aurtun ere ez da musi-ka guztien belarreiatar iritsiko. Eta guk, injustiziaren eritmorra dantza egin behar al dugu? Esan dezagun ahalik eta ozenen legea ez dela be-tetzen, eta eska dezagun gure bal-koietatik euskal presoek etxean egoteko duten eskubidea.

Kartelak salgai 15ean merka-tuan eta San Martín plazan (baita Osintxun ere) aurkituko dituzue goizez. Bestela, Arrano tabernan edozein egunetan eros ditzakezue.

Adierazi zuen elkartasuna festetan egon ezin dutenei. Jaiak bai, baina guztiok.

Euskal Presoak
Euskal Herrira Taldea

ESKERRIK ASKO GUZTIOI

Gazte lokalaren aldeko plata-formak eskerrak eman nahi dizkie ondoko tabernei, duela bi asteko gazte asteburua antolatu ahal izate-ko emandako dirulaguntzagatik. Guztira 65.000 pezeta batu geni-tuen taberna hauei esker: Arrano, Nahikari, Etxagi, Popis, Infer, Biko, Titos, Oilagorra, Sirimiri, Deporti-bo, Ziripot, Kortazar, Zuhaitzi eta Guria. Guztiei bure eskerrik beroe-nak.

Gazte lokalaren aldeko
plataforma

tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



■ atrebentzia ezpada

Zer pentsatzen jatzu alkoholemia tasa 0,8tik 0,5era jaitsi izana? Neurri egokixa dala uste dozu?



Jose Antonio Muñoz

Nik ez daukat kotxerik baina normala iruditzen zait, lehenik eta behin gidariaren segurtasuna zaindu behar delako.



Jose Antonio Martinez

Alkoholaren kontsumoarekin zerikusia duten istripu asko dago eta neurri ona dela uste dut. Normala ikusten dut tasa jaistea.



Maria del Mar Pombar

Nik uste dut ondo dagoela, istripu gehiegi dagoela oraindik ere. Jendeak alkoholaren kontsumoa gehiago zaindu dezan neurri ona izan daiteke.



Izaskun Areizaga

Bi zerbeza hartuta positibo ematen duzula entzun dut eta hori ere gehiegizkoa iruditzen zait. Horrela egin beharko da baina ez dakit gehiegizkoa den...



Laura Urraca

Ikusiko da. Gidatzen hasi berri direnentzat ondo pentsatzen jat eta gero pertsonaren arabera da: batzuk 0,5ekin ondo gidatzen dabe eta beste batzuk ez.



Jose Maria Prats

Argi dago edanda dagoen inork ez lukeela kotxea hartu behar eta beraz ondo ikusten dut alkoholemia tasa jaistea. Guztion onerako izango da.

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03.97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

KULTUR ETXE KANPOALDEKO EGOERA

Jose Hernandezen

bisita izan genuen martitzenean erredakzioan. Jose Bolu aldean bizi da eta haserre etorri zitzaigun Kultur Etxearen kanpoaldean martitzen goizean zeuden zikinke-riengatik (plastikozko ontziak, paperak, koardernoetako orriak etabar). Jose, kalera bidean, Santa Anatik pasatzen da egunero eta, kale garbitzaileak pasatu bitartean, inguru hori nahiko zikina egoten dela esan zigun. Antza denez, Kultur Etxean izaten diren ikasleak ez dira asko arduratzen plastikoak eta abar jasotzen eta nahiko tris- tea iruditzen zaio. Kultur Etxean zakarrontziak badi-rela eta horiek erabiltzeko eskaera egin nahi du Josek.

■ ikuspuntua: **marta moral**

Martxan jartzeko garaia



Hauteskunde garaia ia heldu da. Politikoak martxan jartzen ikusiz gozatzeko sarria da. Orain alkate eta alkategaiei heldu zaie txanda.

Une batetik bestera 2000. urtean sartuko gara eta salatzeokoa da oraindik orain autobide eta trenbide metro bat ere ez dugula Deba Garaian. Jakin badakit Eibar-Gasteiz

autopista badatorrela, baina horrek ez ditu arazo guztiak konponduko, eta ezin dugu ahaztu erabiltzeak ordaindu egin behar izango duela autopistako bidesaria.

Hori bai, Deba Garaiko biztanleek eder- to ordaintzen diote Foru Aldundiko diru-ku- txari Gipuzkoako beste hainbat lekutan bi- desari soziala ezarri ahal izateko, baina ez dute inongo onurarik lortuko ordea.

Deba Garaiko biztanleek A-8 autopista erabiltzen duten bakoitzean ahalik eta or-

dainleku gehienetatik irten beharra izaten dute 33 bidaia egin ahal izateko, eta horrela, beste leku batzuetan daukaten %33ko beherapena lortu ahal izateko, eta dirulaguntzaz baliatzeko.

Azken finean, egoera hau Errepideetako foru diputatuaren adar jotze hutsa da, bera baita egoera honen arduradun nagusia, eta Deba Garaiko alkateek ez dute zirkunik ere egiten.

Jarri martxan! Lehengo urratsa izan daiteke Foru Aldundiari eskatzea bidesari so- ziala egindako bidaien arabera ezarri behar- rean, egindako kilometroen arabera izan dadila. **B**

■ asteko menua: **agirrebeña jatetxea**

Entrekota bi saltsatan



MIKEL ANDONI OLABARRIA,
AINTZANE REMENTERIA,
IKER ZABALA
eta JUAN MARI PALOMO
Agirrebeña jatetxeoak

OSAGAIAK (4 lagunendako)

- Kipula 1
- Bi berakatz buru
- 6 pikilo piper gorri
- 6 piper berde.
- Kilo bat okela (entrekota)

PRESTAKETA

- Kipula, berakatz eta pikilo piperrak sueztitu.
- Guztiari haragi salda gehitu.
- Gutxitu arte sutan laga eta, ondoren, saltsa dena txinotik pasatu.
- Prozesu bera errepikatu baina pikilo piperren orde, piper berdeak erabili.
- Entrekota plantxan egin.
- Mahaira ateratzeko, entrekota bi saltsekin (berdea eta gorria) estali.
- Eta, prest jateko. On egin!

■ adituen esanetan

Yoga: antzinako metodoa

JOSE LUIS ARMENDIA, *yoga irakaslea*

Yoga metodoari buruzko lehen idatziak duela 5.000 urte ingurukoak dira eta Indian aurkitu ziren. Sasoi horretako da, hain zuzen, "Ayur Veda" izenburuko liburua, osasunaren ezagutza aztertzen duena. Medikuntza tradizionalak sintomak lantzen baditu ere, yogak minaren kausak aztertzen ditu enfoke holistikotik, hau da, gorputza, burua eta izpiritua (ez ikuspuntu erlijioso batetik baizik eta barruan dugun energiari edo arimari garrantzia emanez) landuz. Yogaren azken helburua aipatutako hiru elementuen arteko oreka bilatzea da. Arlo bakoitza lantzeko teknika konkretu batzuk daude.

Yogaren helburuak norberak jartzten ditu. Nik esango nuke kontzientzia (burua), gorputz fisikoa eta sentimenduak, hiruen arteko batasuna dela. Euskaraz "osatu" hitza zerbait falta eta betetzen denean erabiltzen dugu ("taldea osatu" adibidez) baina sendatu ere esan nahi du. Pertsona osasuntsua pertsona osoa da, arloren batean huts egin ez gero ez gaude ondo. Nagusiki prebentzio lana egiten da yogan eta lortzen dugun lasaitasunak beste gauza batzuk lortzeko aukera emango digu. Yogak lan apur bat eta batez ere jarraitasuna eskatzen du; egunero egin behar harko litzateke. **B**

■ bergarako gordailutik

ELOSU Imanol Sorondo

Zenbait garaitan Elosuri "Valle de Elosua" deitzen zitzaion, harrigarria badi-rudi ere gure ikuspegitik. Elosu esaten dugunean, oroitzapen asko etortzen zaizkigu burura: paraje ederrak, trikuharriak, mandobidea, Pol-Pol, ardiak, baserriak, gazteluaren oinarriak, urteko feria, ipuin zaharrak, jentilenak tartean eta abar. Bertan ibili zen ikerketa lanean On Jose Migel Barandiaran; oraintsu Miren Goñi aritu da ohitura zaharrak eta lehengo nekazari-tzaren aztarnak jasotzen, eta bere lanak Eusko Ikaskuntzan argitaratu dira.

Agian, XVII. mendean egin zuen gorakada Elosuko bizitzak: orduan egin ziren elurzuloak eta, ziurrenik, Bentako ostatua; Santutxua ermita izatera pasatu zen eta ibiltariak asko ugaritu ziren.

San Andresko ermita, parroki izan zen XVI. mendean eta orduan hasi ziren elizako obrak, inguruan zeuden gaztelu zaharreko harriekin diotenez. Elosuarrak asko saiatu izan dira bere Elizaren alde eta bertan apaiz bat edukitzen; hala ere, gehienetan San Pedro parrokiatik joan izan zaie, Eliza horrekin beti eduki baitu hartueman handia. Elosuko Parrokiaren bataio liburua 1549. urtean hasten da; badauzka liburu gehiago ere, Kofradi batzuetakoak tartean.

Hasierako diru kontuak diotenez, Elosuko elizak gauza askoren hasikinak jasotzen zituen: bildotxanak eta ganaduenak, eta gari, oli, artatxiki, untzegari eta linu eta sagarrarenak. Labeagako zelaian ere bazen dirua jasotzeko kutxatila. Gehien harritu ninduen Soraluzetik eta Antzuola-Uzarragatik urtero bertara prozesioa egitea izan zen, beren limosna lagatzen zutela. Igeltsoz egindako sagraioa zegoen elizan. **B**



Urrezko ezteiak

Enrike Lete bergararrak eta **Rufina Zelaia** oñatiarrak euren ezkontzaren **urrezko ezteiak** beteko dituzte datorren zapatuan, maiatzaren 22an. Rufina eta Enri-

ke **1949ko maiatzaren 22an ezkondu ziren** Oñatiko San Migel parrokian eta elkarrekin igarotako urte guzti hauek ospatzeko senideekin bilduko dira Pazkuetako zapatuan. Oñatiko San Migel parrokian meza entzun ondoren, bazkaria izango dute Lasa jatetxean eta han izango dira, besteak beste, Enrike eta Rufinaren hiru alabak eta hauek eman dizkieten lau bilobak. Zorionak!!



Kazetari gaztetxoak

San Martin ikastetxeko ikasle talde batek **Loiola Irratiko "Kukumiku" saioan** parte hartu zuen zapatu goizean. Zuzenekoari inolako beldurrik gabe, gaztetxoak primeran moldatu ziren mikrofono aurrean **Marilu Odriozola** irratsaioa aurkezlearen esanetara. Bertsoak, txistek edo heltzear dauden Pazkuen inguruko informazioa eskaini zioten Loiola Irratiko entzulegoari. Argazkian **Olatz Etxeberria, Olatz Esnaola, Imanol, Maite, Amaia, Unai, Nagore eta Jon Marilu Odriozolarekin** ikus ditzakezue. Mariluren kolaboratzaile finak gaztetxo hauek...



Ospakizunak Mariaren Lagundian

Ikastetxearen sorreraren 200. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldiekin jarraituz, bertako ikasleek hainbat ekitaldi izan dituzte astean zehar. Astelehenetik gaur eguakitzera bitartean **tailerrak, zine emanaldiak, meriendak, txiste kontaketa saioak, bitzaldiak edo hainbat irteera** antolatu dira. Bestalde, bihar, zapatua, **Juana Lestonnacekoaren kanoizazioaren 50. urteurrena** betetzen denez, **Jose Antonio Pagolak** meza emango du 17:30etan Mariaren Lagundiko elizan. Aurretik, 17:00etan, **Begoña Zubizarreta** Euskal Herriko Mariaren Lagundiko probintzialak barrera egingo die bildutakoei. Meza ostean eskola bisitatu eta urteurrenerako egindako diaporama ikusteko aukera izango dute bertaratuek; amaitzeko luntxa eskainiko da.

50 urte elkarrekin

Gaur, maiatzak 14, 50 urte betetzen dira **Onesimo Manzano eta Milagros Ramos** ezkondu zirenetik eta gaur bertan senideekin batera bazkari eder batekin ospatzekoa zuten fetxa hain berezia. Australiatik etorri berri den euren alabetako bat ere beraiekin izango da gaur. Milagrosek eta Onesimok sei seme-alaba eta zazpi biloba dituzte eta ziur gaur egun ahaztezina igaroko dutela guztiek. Zorionak!!



B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK:** **ARTZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 608 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 608 77 17 32 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 608 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK:** **LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA:** **IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK:** **ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAK ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S.** Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA:** **LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK:** **ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA:** **SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK:** **AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irupe.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 20 51 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 • **PAYROS Aitziber** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA:** **BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA:** **OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK:** **ALTUBE Edurne.**

Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

■ **PSIKIATRA:** **GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64

■ **PSIKOLOGOAK:** **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa).

943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarría, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 37 zenbakia. 1999ko maiatzaren 14a.

Hauteskundeetarako prest

EAJ eta EHren artean erabakiko da alkate berria


Datozen lau urteetan Antzuolako udal batzordea osatzeko zerrendak atera dituzte dagoeneko herrian aurkeztuko diren lau alderdi politikoek. Hasiera batean EAJ eta EA batera jokatotan ziren arren, azken orduko ikamikkak tarteko, alderdi bakoitzak bere zerrenda aurkeztuko du ekainaren 13ko hauteskundeetan. Eusko Alderdi Jeltzetik Jose Angel Zabalo "Txarron" da zerrendaburu. Euskal Herritarrok taldetik Mireia Unamuno, Eusko Alkartasunatik Jose Ignazio Madariaga "Piti" eta PSE-tik, berriz, Juan Benitez.

Lau alderdiek zoru industrialaren beharra eta etxebizitzak bultzatu beharra azpimarratzen dituzte euren hauteskunde programetan. Horrez gain, gazteen parte hartzea bultzatu nahi du EHk eta EAK, berriz, langabezia gutxitu nahian Udala eta herriko enpresen arteko elkarlana.

Guk bost galdera egin dizkiegu lau alderdi horietako Izerrendagaiei:

Zerrendagaiei galderak

1. Zergatik aurkeztu zarete hauteskundeetara?
2. Zein izango da zuen lehenengo eginkizuna?
3. Zerrenda osatzeak lan hañdia eman dizue?
4. Nola geldituko da udal gobernu berria?



Iazko urrian egindako Euskal Autonomi Erkidegoko hauteskundeak.

EAJ Jose Angel Zabalo

1. "Hauteskudeetan parte hartzea proposatu zidatenean, herriaren alde lan egitea merezi zuela eta aurrera egitea erabaki nuen". Baina jeltzaleei baldintza bat ezarri zien Jose Angel Zabalo: zerrenda berak osatzea, beti ere EAJ eta EA bat etorri gero. Azkenean, ordea, "EAK alderdi bezala bere eskubidea daukala, aurreko hauteskundeetan zinegotzi bat atera zuela eta hirugarren zerrendagaia EAKo kidea izan behar zela eta... Oraindik siglak ditugu buruan eta horrela pentsatzen dugun bitartean arazoak izango ditugu. Zerrenda bat eta bakarra egin beharko litzateke".


2. "Helburu nagusia industriarako lurralde lortzea litzateke, baina bost lan arlo nagusi ditugu. Enpresa batek herritik alde egitea ezin dugu onartu. Etxebizitzaren proiektua bultzatu arren, marko baten barruan egin behar da. Plan orokor bat landu behar da, non eta nola lan egin behar den jakiteko. Orain egingo diren etxeen proiektuan esaterako, enpresa bat etxeetatik oso gertu gelditzen da eta bizi-kalitatearen aurka doa hori. Enpresa hori hortik atera egin beharko litzateke eta horretarako lehenengo lurra lortu behar da, finantziario bidez".

3. "Guk lanerako talde bat osatu dugu. Ez dut onartzen halako trabak jartzea.

UDAL HAUTESKUNDEAK

Lan egiteko orduan, pertsonal arloan, enpresa egitura bat egin beharko litzateke eta horren arabera pertsonal arloan Jose Luis Kortabarriarekin batera lan egingo dut. Hirigintzan, Julen Iparragirre; Kultura eta Kiroletan Jose Luis Kortabarria. Zerbitzuen arloan Mikel Larrañagarekin batera lan egingo dut, bera arduradun bezala; eta enpresa egitura bat antolatuko dugu. Osasuna, ingurugiroa eta mendien arloan Mari Jose Llamas arituko da”.

4. EAJ (4 ordezkari), EH (3 ordezkari), EA (ordezkari bat) eta PSE (ordezkari bat). Hala ere, Jose Angelek beste banaketa hau du gustuko: EAJ (bost ordezkari), EH (lau ordezkari) eta PSE (ordezkari bat).



1. Jose Angel Zabalo
48 urte. Zabalo Iturgintzako kudeatzailea. Zinegotzia (1979-83).



3. Julen Iparragirre
33 urte. Injineru tekniko industrialia. Elayko mantentimendu arduraduna.



4. Mikel Larrañaga
28 urte. Oñatiko parkeko suhiltzailea. Eibar taldeko futbolaria

2. J. Luis Kortabarria
60 urte. Kutxako langilea.

ZERRENDA OSATZEN:
- Mari Jose Llamas
- Iñigo Ramirez de Okariz
- Florentino Lamariano

- Basilio Ormazabal
- Felix Agirre



EH Mireia Unamuno

1. “Euskal Herritarrok herrian sortu zenean talde bat baino gehiago hasi ziren lanean eta horietako bat hauteskunde taldea izan zen. Lehen bi zerrenda ziren (HB eta ZUTIK) eta orain bakarra aurkeztuko dugu: EH”.

2. “Aurrekontua onartuta egonik, ezin da gauza berri asko planteatu eta, agian, partidak bideratzerakoan alaketak proposatu beharko dira. Hasita dagoen

etxebizitzaren proiektuarekin jarraitu behar da, baina etxebizitza zaharrei irtenbide bat eman behar zaie. Antzuolan etxe zahar asko dago hutsik. Bestalde, industri mailan dagoen arazoa ezin da ahaztu. Enpresak herritik alde egitea ezin da onartu. Garrantzi mailan, lehenengo ez badago ere, epe oso motzera sortuko den arazoa da lurzoru industrialarena. Onartutako aurrekontuetan ez da ezer aurreikusi industriarako eta hori dela eta, agian, partidak aldatu beharko dira. Aldundiarekin lan gehiago egin beharko

da aukera guztiak aztertzeko. Antzuola ezin da izan “Iotarako herri” bat izan”.

3. “Denok argi genuen zein zen egoera eta beteranoak tartekatu dira, jende gazteari bultzada emanaz. Esperientzia eta lanerako gogoia nahastu ditugu, herriaren alde lan egiteko”.


4. EH (4 ordezkari), EAJ (4 ordezkari), PSE (ordezkari bat) edo, EH (4 ordezkari), EAJ (3 ordezkari), EA (ordezkari bat) eta PSE (ordezkari bat).



1. Mireia Unamuno
33 urte. Zuzenbidean lizentziatua. 4 urtez Kultura eta Ongizate zinegotzia.



2. Jon Kortabarria
27 urte. Mekanikari industrialia. Goizperko langilea azkenengo 5 urteetan.





3. J. Jose Azkarate
53 urte. Mayc-en lanean 27 urtez. Zinegotzia bi legealditan. Sindikalista (ESK).



4. Josune Irizar
28 urte. Ekonomian lizentziatua. Fagor-en lanean. Antzuolako AAB-ko kide.

ZERRENDA OSATZEN:

- Andoni Azkargorta
- Jose Antonio Igarza
- Aitor Aranguren
- Salvador Serrano
- Patxi Olabarria
- M. Eugenia Irazabal
- Mikel Mondragon
- Jose Luis Lizarralde



Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantentimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu



GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

PSE Juan Benitez

1. "Hamabi urte segidan urte asko dira eta garaia zen aldaketa egiteko, dena dela, aldaketa txiki bat dago oraingoan. Herriarengatik lan egin nahi dugun arren, orain arte behintzat ez digute laga. Zinegotzi bat lortu nahi dugu eta alkatetza lortzen duen alderdiak gurekiko jarrera irekia erakusten badu, lan egiteko prest gaude".

2. "Martxan dagoen etxebizitza proiektuari eutsiko diogu, hori baita oraingo udal gobernuak egindako lanetatik txalagarriena. Lurzoru industrialera ere bideratu beharra dago. Matz Errekak adibidez errepidearen ezkeraldera lekua dauka eta Goizper ere horretan ari da. Basalde, bestalde, toki ona den arren oso garestia da, eta indar gehiago egin behar da Eusko Jaurlaritzan. Elay da arazorik handiena duena eta plan orokorra onartu beharra izango da udal gobernu berriaren lanik astunena, errekaaren auzia bezala, liskar handiak daude eta familien artean".

3. "Gutxieneko zerrenda bat osatu dugu, batez ere dagoen egoera ikusita. Ez dugu inor derrigortu nahi izan. Ez da erraza izaten gure kasuan zerrenda osatzea".

4. EH (4 ordezkari), EAJ (3 ordezkari), EA (ordezkari bat), PSE (ordezkari bat).


EA Jose Ignazio Madariaga

1. "Hasiera batean EA bezala aurkezteko asmorik ez genuen, baina arazoak egon ziren. EAJk alderdiaren izaera galdu du aurkeztu duen zerrendarekin eta guk hori ezin genuen onartu. Don't legearen arabera hirugarren zerrendagaia EAko kidea izan behar da eta akordiorik ez da egon, nahiz eta penagarria izan".

2. "Horrenbeste lanpostu sortu diren herri batean biztanle kopurua jeistea

**1. Juan Benitez**

42 urte. Igeltseroa. 11 urtez zinegotzia.

**2. Paco Morcillo**

47 urte. Elayko metalurgi lana 23 urtez. 12 urte segidan zinegotzi.

ZERRENDA OSATZEN:

- Benancio Tena
- Isabel Ortiz
- Claudio Cabrera
- Julia del Rio
- Guillermo Pozo

3. Manuel Castaño

46 urte. Garraiolaria. PSEko zerrendagai urte askoan.

onartezina da. Azkenengo urte honetan etxebizitzak bultzatzeko proiektu bat egon den arren aurretik ez da ezer egin. Hori dela eta, guk etxebizitza proiektuak bultzatuko ditugu. Horrez gain, lurzoru industrialera aurkitu beharra dago eta horretarako lurra berrordenatu behar da, industria eta etxebizitzak bereiztuta egon daitezten. Ongizate arloan ere lan egin beharra dago eta bide batez base-riaren alde lan egin behar dela uste dugu. Langabezia saihesteko Udalak enpresekin lan egin beharko luke, ahal

den neurrian, ikasteko gai ez denak ere lanean hasteko aukera izan dezan herrian".

3. "Ez digu lanik eman zerrenda osatzek, nahiz eta hasiera batean zerrenda bakarra aurkezteko prest geunden. Eskatu genuen bakarra hirugarrena eta seigarrena EAko kidea izatea izan zen, baina ez zen onartu".

4. EH (4 ordezkari), EAJ (3 ordezkari), EA (ordezkari bat) eta PSE (ordezkari bat). ■

**1. J. Ignazio Madariaga**

42 urte. Elayn lanean 27 urtez eta ordezkari sindikala (ELA).

2. Pedro Madariaga

56 urte. Baserritarra.

**3. Dina Mujika**

36 urte. Dendaria 10 urtez. Azkenengo hauteskundeetan ere EAko zerrendagai

ZERRENDA OSATZEN:

- Judit Iparragirre
- Isidro Zabaleta

**4. Gurutz Madariaga**

40 urte. Elayko langilea 25 urtez eta ordezkari sindikala (ELA). AKE-ko juntakide 21 urtez.

- Ildefonso Garcia
- Angel Mari Del Teso
- Julian Azkargorta

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40

**GOROSTI
Taberna**

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotzak •
- Moketak eta tapizatuak •

LARREA**TABERNA**

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Iazko San Isidrotan jende ugari hurbildu zen feriara.

San Isidroak zapatuan

Baserritarren eguna ospatu da zapatuan, maiatzaren 15ean. Antzuolan, ez da gaur goizekoa egun hori ospatzeko ohitura. Horren adibide Udaletxean aurkitu dugun hurrengo "abisua". Adi adi irakurri, merezi du eta. Hirurogeita hamabosna pezeta, 1905. urtean diru asko zen eta honelako apustuek arrakasta handia izaten zuten. Aurtengo San Isidrotan ez da aizkora apusturik egongo, baina nahi duenak, izango du talde baten edo bestearen alde egiteko aukera egingo den sokatira saioan. Hori 17:00etan izango da. Aurretik, goizean, feria egongo da ikusgai, ganadu eta euskal produktuen feria. Iaz bezala, Olaran etxe osteko zelaian egongo da ganadua eta produktuen salmenta. Iparraldetik ekarritakoak ere erosi ahal izango dira Antzuolakoekin batera. Feria goizeko 10etan hasiko da eta eguerdiko ordubiak arte egongo da zabalik. Tartean, gainera, Kukumarro lehiaketako sariak banatuko dira.

ABISU BAT

San Isidroren egunean, ill onen amabostian Anzuolako erri onetan jokatu da goiceko amaiketan aizkora apusta bat Florentino Bastarrika Vergarakua eta Marcelino Aranguren Villarreal de Urrechakuaren artian, ceñek lenago ebaqui seiña tronku amabost onza lodikuak.

Apustatuzten dute iruroguei ta amabosna peseta.

Nai duenak ikusi ezdanka ecer pagatubearrik.

Anzuolan Mayatzaren 7 eta 1905 urtean.

Cemisia.

Arratsaldean, berriz, aipatutako sokatira saioa eta ondoren, sei eta erdie-tan, erromeria hasiko da herriko plazan, Gezalaga anai-arrebekin.

Ondo pasa!

JAIETAKO LEHIAKETA

Antzuolako jaietarako egitarauaren azala egiteko lehiaketa antolatu du Udalak.

Parte hartzaileek ekainaren 14a arte dute lanak aurkezteko astia eta bide batez 30.000 PTA irabazteko aukera. Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira, sobre itxi batean eta behar bezala adierazita egilearen datu pertsonalak.

Iaz Visi Rodrigezek irabazi zuen eta berea izan zen programak eraman zuen azala. Mairuaren alardea abiapuntutzat harturik akuarelaren teknika erabili zuen antzuolar honek.

SASKIGINTZA ERAKUSGAI

Asteburu honetan saskigintzari buruzko erakusketa egongo da ikusgai Udaletxeko areto nagusian. Eguakitz iluntzean irekiko da eta zapatu eta domekan egongo da zabalik. Bi egun horietan ordutegia honako hau izango da: eguerdiko 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 19:00etatik 20:30etara egongo da zabalik.

MENDIZ MENDI

Mendi Federankundeak 75 urte bete ditu aurtan eta hori ospatzeko ibilaldi bereziak antolatu ditu. Izan ere, bost makila ari dira mendirik mendiri, mendizale elkarten artean banatzen.

Joan den domekan Nafarroako Ori mendian jaso zuten Arrolakoek Mendi Ferakundearen 75. urteurrena dela eta mendi mendi dabilen makiletako bat eta hilaren 15ean Eibarko mendi taldeari emango diote Txindoki gainean maiatzaren 23an Elgetan egitekoa den ospakizunean beste lau makilekin elkartzeko. Hori dela eta irteera antolatu du Arrolak maiatzaren 23rako. Irteera goizeko 09:00etan izango da eta izen ematea, berriz, maiatzaren 17an, Arrolaren egoitzan.

PALA TXAPELKETA

Datorren zapatuan, maiatzak 22, jokatu dira herriko pala txapelketaren finalak.

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kuxilatua eta barnizaketa •

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kuxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.
Gotelesa, iztukuak eta
bestelako imitazioak.

ANTZUOLA BERGARA
☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98

Alkoholari STOP



**Alkoholemia
tasa berria
indarrean da
dagoeneko**

Ertzaintzak 50.445 alkoholemia test egin zituen iaz Euskal Autonomi Erkidegoko errepideetan; %94,36k emaitza negatiboa eman zuten eta %5,22ak, berriz, baimendutakoa baino alkoholemia tasa handiagoa. Era berean, %0,42ak alkoholemia testa egiteari ezetza eman zioten. 1997ko datuekin konparatuz gero, emaitza baikorrak izan ziren iazkoak; orduan egindako proben %91,92 negatiboak izan ziren eta %7,44, aldiz, positiboak. Era berean, alkoholak eragindako trafiko istripuak gutxitu egin ziren: 1997an 522 istripu izan ziren eta 1998an 479. Ertzain-

ARTIBOIA

Joan zen eguakitzetik indarrean daude alkoholemia tasa berriak. Odol litro bakoitzeko 0,8 gr.ko alkohol tasa 0,5era jaitsi da eta, beraz, gidariek zuhurrago jokatu beharko dute aurrerantzean bolantea eta alkohola tartekatze orduan. Istripuak gutxitzeko hartutako neurri honek zeresan ugari eman du gidarien artean.

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,

BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



Mujika
gozologia



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errelenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

Orralde honetako argazkian Jabier Bretaña garraiolaria. Urtean 140.000 kilometro egiten ditu kamioarekin Bergara eta Bartzelona artean. Ondoko orrialdean Marife Muñoz txoferra, artxiboko argazkian.



tzako iturrien arabera, "gidatu behar denean alkohola kontsumitzeak dituen arriskuez ohartarazteko egin diren kanpainek bere eragina izan dute gizartean eta gidariak gero eta konzienteagoak dira arazo horretaz. Bolantea eta alkohola bateraezinak direla ikusi du jendeak eta horrek emaitzak ekarri ditu berarekin.

Esan bezala, egunotan gidariei zuzendutako alkoholemia tasa berriak indarrean jarri dira. Horrela, odol litro bakoitzeko gehienez 0,5 gr. alkohol izango da gehienezko kopurua hemendik aurrera. Era berean, hartutako aire litro bakoitzeko kopurua 0,4 miligramotik 0,25ekoa izatera pasatu da. Kamioien, autobusen edo ikasleen garraioan ari-

Alkoholemia tasa berriaren ezartzeak bi helburu ditu: istripuak gutxitzea eta EAEko egoera Europar Batasunekoarekin parekatzea

tzen diren txoferren kasuan eta urjentziatako ibilgailuak gidatu edo merkantzia arrikutsuak eramaten dituztenei ere 0,3 gr.ko kopurua aplikatuko zaie. Gauza bera gertatuko da bi urte baino gutxiagoko esperientzia duten gidariek.

ISTRIPUAK GUTXITU

Alkoholemia tasa berriaren ezartzeak bi helburu nagusi ditu: alde batetik, istripuak gutxitzea eta, bestetik, Euskal Autonomi Erkidegoko egoera Europar Batasunekoarekin parekatzea, izan ere gero eta herrialde gehiago dira kopurua jaistera jotzen dutenak. Horrela, Alemanian, Austrian, Italian, Britainia Handian eta Danimarkan 0,8an finkaturik dago gehienezko alkoholemia tasa; Belgikan, Finlandian, Holandan, Portugalen eta Frantziako estatuan 0,5ekoa da eta Suedian, berriz, 0,2koa. Antza denez, gazteak dira afektatuena arazo honekin. Ertzaintzaren datuen arabera, 25 urtetik 44 urtera bitartekoak dira alkoholak eragindako istripuak gehien sufritzen dituztenak eta ondoren 25 urtetik beherako gazteak leudeke.

Alkoholemia tasa berriak zeresan ugari eman du azken egunotan. Hainbat ikerketen arabera, 70 bat kiloko gizonetzkoetan, bi zerbeza eta baso bat ardo edan osteko hurrengo ordubeteetan positibo ematea posible litzateke. Emakumeen kasuan, 55 kiloko batek positibo eman dezake baso bat ardo eta zerbeza bat hartuz gero. Horrek alarma piztu du gidariengan.

ERREPIDEAN

Jabier Bretaña (34 urte) 16 urte daramatza garraiolari lanetan eta datu horiek gehiegizkoak iruditzen zaizkio, "ezartzen dituzten zigorrak kontutan hartuz. Ni ados nago alkoholemia kontrolak egitearekin baina zigorrak neu-

DATUAK KOMISALDEGIKA

Iturria: Ertzaintza

1998	Positiboa	Negatiboa	Egiteari ezezkoa	GUZTIRA
ARRASATE	122	2.019	7	2.148
EIBAR	80	610	2	692
BERGARA	67	1.000	1	1.068

1999 urtarrila-martxo	Positiboa	Negatiboa	Egiteari ezezkoa	GUZTIRA
ARRASATE	52	980	6	1.038
EIBAR	23	167	3	193
BERGARA	18	169	2	189

ISUN GOGORRAK

Amaia Zabaleta abokatuak esan digunez, kode penal berriaren arabera, onartutako alkohol tasa gainditzen duten gidariak 8-12 astebukaera bitarteko arrestoa edo 3 hilabetetik 8ra bitarteko isunak jasotzen dituzte gaur egun. Isunen kasuan, epaileak finkatzen du balioa, egun bakoitzeko hainbesteko diru isuna ezarri. Kode zaharrean, 100.000 pezeta-tik milioi bat pezeta bitartekoa zen aipatutako isuna. Horri denboraldi baterako karneta kentzeko zigorra gehitu behar zaio, positibo ematen duten gidariak urtebete eta lau urte bitartean

itxoin behar izaten baitute berriz biltzean jarri arte (lehen hiru hilabetetik 5 urtera bitartekoa zen epe hori).

Bestalde, testa egiteari uko egitekotan, Ertzaintzak atestatua egiten du eta gidariari 6 hilabetetik urtebetera bitarteko kartzela zigorra ezartzen zaio (antezedenterik ez badago gidaria ez doa kartzelara). Ertzaintzak gidaria mozortuta zihoala frogatzen badu, bi zigor aplikatuko litzaizkioke, ezezkoagatik eta alkoholemiagatik. Dena den, positibo eman eta edozein zalantza dagoenean, odol analisia egiteko eska daiteke.



ARTXIBOA

rriz kanpokoak izaten dira batzuetan. Positiboa emanez gero, hainbat jendeak arriskuan jartzen du bere ofizioa. Eta gure kasuan alkoholarekin baino atse-den faltarekin izaten dute zerikusia istripu gehienek". Jabierrek ez dauka edateko ohiturarik lanean dabilenean. Urtean 140.000 kilometro egiten ditu. Garraiolarien artean positibo kasurik ematea oso arraroa dela diosku, "gehienok ez dugulako alkoholik edaten". Berari ez zaio sekula kamioiarekin alkoholemia testa egin behar izatea tokatu, "kotxearekin bai baina guztietan negatibo eman dut. Niri ondo iruditzen zait gidarien kasuan alkoholaren

70 bat kiloko gizonezkoetan bi zerbeza eta baso bat ardo edan osteko hurrengo ordubetean positibo ematea posible litzateke

kontua zaintzea eta benetan istripuak gutxitzeko baliogarria gertatzen bada, askoz hobeto".

Marife Muñoz txoferra ere iritzi berekoa da; "istripuen arazoa hobetzen

baldin bada uste dut guztion onerako izango dela. Askotan inolako errurik ez dutenak izaten dira kaltetuenak, edanda datorren gidari batek txoke egiten dienean". Marifek 9 bat urte darama txofer lanetan Araba autobusak enpresan eta alkoholemiaren kontuarekin autobusez egiten diren bidaiek nabarmen gora egiten dutela diosku; "koadrila asko etortzen zaikigu, despedidak edo kintadak direla eta beraiek komentatzen digute nahiago dutela autobusez joatea eta kotxearekin ahaztea, isunak oso gogorak direlako. Jendeak nahiago izaten du ziur jokatzeko holakoetan eta lojiko ikusten dut". **B**

BERGARA haize berriak

ZAPATUA maiatzak 15, 10etan Elementalean

- Herri programaren aurkezpena eta eztabaida

- Arloak: udalgintza, sozioekonomia, euskara, kultura, ongizatea, lurralde antolaketa, irakaskuntza, kirolak, auzoak...

EH

Euskal Herritarrok

HAIZE BERRIAK

Dietetika eta Nutrizioa

Lorea Aramburu Doktoa

- Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna.
- Bordeleko Unibertsitateak Dietetikan eta Nutrizioan diplomatua.
- Bordelkeko Unibertsitateak Kirol Medikuntzan diplomatua.

Tratatzen diren osasun arazoak:

- Kolesterola
- Loditasuna
- Diabetesa
- Azido urikoa
- Arteria hipertentsioa
- eta abar.

Ordutegia: Goizez eta arratsaldez

INSTITUTO MÉDICO PALACIO MENDIA


Erdiko kale 22, 1. • ARRASATE • Tf. 943 79 72 16

400 motorzale inguru Bergarako kaleetan zehar domekan

Arrasateko motorzaleek XX. kontzentrazioa antolatu dute

Ibilbideak, Arrasateko Musakola auzoan izango du hasiera. Bergarari dagokionez, Beheko Estazioko bidegurutzean sartu, Ertzainen aldapa igo, San Pedro eta Arte kale kaleak zeharkatu, eta Gorkale bidean gora igoko dira Elosura iritsi arte. Bidegurutzera goizeko 10:54 aldera iritsiko dira. Elosura, berri, 11:12ak aldera.

Elosun hamaiketako egin ondoren, 12:15 aldera, Gorlatik jaitsi, Fraiskozuri plaza zeharkatu eta Arrasateruntz bueltatuko dira. Arrasateko Motorzale Elkar-teak 90 bazkide ditu eta hauetatik 15, bergararrak dira. Hauen artean, federatuta eta txapelketetan ari direnak Angel Bideluze, Asier Blazquez, Joseba Lopez, Gurutz Linazisoro eta Mikel Gomez dira. Josu Leturia elkarteko kideak adierazi digunez "bailara mailan Arrasateko Elkar-tea da indar gehien duena eta legalki onartuta dagoen bakarra. Motorra gustoko dugun bergararrak eta bailarako beste herrietakoak ere, arrazoi horregatik gaude bertan.



lazko kontzentrazioan egindako ibilbidea Arantzazuraino iritsi zen.

Ekintza asko antolatzen dira eta bertan izateak aukera handiak luzatzen dizkigu".

ESTATU MAILAKO KONTZENTRAZIOA

Kontzentrazioak hamar urte bete ditu dagoeneko. Iaz arrakasta handia izan zuen. Orduan, Arantzazuko ibilbidea aukeratu zen; aurten, berri, motorzaleek Bergara eta Elosuko inguruak eza-gutzeko aukera izango dute. "Motorzaleak estatu oso-tik gerturatzen dira. Sevilla,artzelona, Madril... ia pro-


bintzia guztietako ordezkariak etorriko direla esango nuke. Eguraldia eta estatuan beste kontzentziorik izatea ere kontutan hartu behar da. Dena dela, asteburuan dauden kontzentrazioetatik Arrasatekoa da ezagunena eta aspektu hori ez da arazo bat izango. Eguraldiari dagokionez, batek daki. Euskal Herritik etorritakoek osatuko dute multzo handiena baina Sevillatik edoartzelona-tik datorrenak, adibide bat ipintzearren, merito handia du. Horrela-

ko kasuetan sari bereziak banatzen dira, esaterako km gehien egin dituenari, motor zaharrenari, e.a. Gu geu ere kontzentrazio askotan izaten gara urtean zehar. 500 kilometrotako muga ia kontzentrazio guztietara hurbiltzen gara".

Motorzaleen kontzentrazioak, hainbat motorrek dituzten ezaugarriak ezagutzea eta zaletasun berdinean murgilduta dauden hainbat herritako jendea biltzera bideratuta daude, besteak beste. **B**

Aldi bi

Aldibi autoak, S.A.
Zigarrola 1 • ARRASATE
Tf. 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65



Irizar 2
☎ 943 76 14 95

**JAUJA
KIROLAK**

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGIA:
8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE



Labegaraietako **futbito** txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

PLAY OFFETAKO FINAL LAURDENAK

19:00: A Ze Flaxa Etxagi-Ortzi **Antolaketa**
20:00: Bar Canalejas-Pagomendi **Antolaketa**

DOMEKAN BARRUAN

PLAY OFFETAKO FINALERDIAK

17:30: Errotagain-A Ze Flaxa Etxagi/Ortzi **Antolaketa**
18:30: Bildurbarek-Canalejas/Pagomendi **Antolaketa**

argi!

Play Offetako finalak eta Kopako finalistak

Domekan play offetako finalerdiak jokatuko dira. Errotagain taldeak, A Ze Flaxa Etxagi eta Ortziaren arteko partiduko irabazlearen kontra jokatuko du arratsaldeko 17.30etan eta Bildurbarek Opel Lam taldeak, berriz, Canalejas eta Pagomendiren arteko garailearen aurka, arratsaldeko 18.30etan.

Kopako finalistak, berriz, Pagomendi eta Bar Canalejas dira.

emaitzak

KOPA TXAPELKETA

Pagomendi Guadalest **4-2**
Bar Canalejas Azpeitxi Jatetxea **5-3**

nesken futbito a

OHARRA

Joan zen asterako iragarrita zeuden partiduetan ez ziren jokatu; beraz, asteburuan partidu berak jokatuko dira.

SAILKAPENA

Gu Geu 12 puntu / 4 partidu
Potzu 12 puntu / 5 partidu
Nifits 3 puntu / 4 partidu
Tetsi 0 puntu / 5 partidu

PARTIDUAK

Domekan, Miguel Altunan

16:30: Nifits-Tetsi / **Potzu Ta Zapaburuak**

17:30: Gu geu-Potzu Ta Zapaburuak / **Nifits**

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Mutriku

Preferente maila

Zapatua. 16:30. Agorrosin

Bergara-Amaika Bat

Neskak

Zapatua. 18:30. Ipintza

Bergara-Anaitasuna

Lehen mailako kadeteak

Domeka. 10:00. Ipintza

Bergara-San Ignazio

Bigarren mailako kadeteak

Domeka. 11:30. Ipintza

Bergara-Amara Berri

Lehen mailako jubenilak

Domekan. 16:30. Agorrosin

ESKUBALOIA

Bergara-Aloña Mendi

Jubenil mailako neska

Zapatua. 16:30. Labegaraieta

SASKIBALOIA

Bergara-Santo Tomas

Jubenil mailako neska

Zapatua. 16:00. M. Lagundia

Bergara-Goierri

Jubenil mailako mutilak

Zapatua. 17:30. M. Lagundia

Bergara-Ordizia

Kadete mailako mutilak

Domeka. 10:30. M. Lagundia

ARETO FUTBOLA

Bergarako Lagunak- Hegoalde Bentaldea

Neskak

Zapatua. 18:00. Kiroldedia

Bergarako Lagunak

Jubenil mutilak

Domeka. 12:00. Kiroldedia

JON ANDUEZA/ Realeko jokalaria

"Talde lanak ekarri digu garaipena"

Realeko jubenilean dabil eta martitzenean, bigarren urtez, ligako txapelkun izatera iritsi ziren Sevillari penaltietan irabazi ondoren. Atzo, eguena, Tenerifera joan zen lagunarteko partiduetan jokatuzera baina Bergarara gerturatu zen denbora laburrean, norgehiagokaren inguruko gorabeherak galdetu genizkion.

G. Hasieratik jokatu zenuen.
E. Bai, partidu osoan zehar. Nahiko partidu gogorra izan zen. Sevillakoek lan handia egin zuten. Teknika aldetik oso joko ona erakutsi zuten. Guk indarra erakutsi genuen batik bat. Taldean ondo ezagutzen

dugu elkar eta talde lanak garaipena lortzera eraman gintuen.

G. Espero baino zaletu gehiago gerturatu zen?

E. Gure partidu bat izateko jende ugari hurbildu zen. Jokalarien gurasoez gain, Alicanteko Realzale peñak ere izan ziren bertan.

G. Penaltietara iritsi behar.

E. Zorionez atezainak lan bikaina egin zuen. Nik ez nuen penaltirik jaurti baina taldekideak behar bezala aritu ziren.

G. Liga nola joan da?

E. Gure liga sei multzotan banatuta dago eta gero ligako lehen sailkatuek, ligilla jokatzen dute guztien artean. Nahiko gogorra izan da fina-

lera heltzea, Athletic eta Athletic guko oso gertu izan baititugu.

G. Zenbat denboraldi egin dituzu jubeniletan?

E. Hirugarrena da. Kadete mailatik, Realean ari naiz.

G. Errege kopa ere jokatzeo daukazue.

E. Bartzelonan izango da. Lehen partidua Espainolan kontra.



Kirol Sariak 99

14 kirolari, BKEko futbol saila eta Reyes Azkoitia aurtengo sarituak

Sariak hiru sailetan banatu dira; alde batetik, kirol elkarte bakoitzak, herriko kirolari onena aukeratu du. Aurtengo edizioan, 12 kirol elkarte izan dira bakoitzari dagokion kirolari onena aukeratu dutenak. Kirolari hauek jasoko duten saria, Pili Arinek egindako eskultura izango da.

Bestalde, herriko kazetariak BKEko futbol saila urteko kirol elkarte onena izateagatik saritu dute 50.000 pezetaekin. Preferente mailak egin dituen bi denboraldiak azpimarratzekoak izan dira benetan. Iaz, mailaz igotzea lortu zuten eta aurtengo aspaldiko partez, hirugarren mailan izateko boleto guztiak ditu. Bestalde, jubencil mailako lehen taldeak sekulako denboraldia egin du eta gaztetxoak ere primeran ibili dira.

Azkenik, kirol elkarte eta Udal Kirol Zerbitzuko teknikariak arduratu dira sari berezia eramango duena aukeratzeaz. Bergarako kirola bultzatu eta babesteagatik eskaintzen den sari berezia, Reyes Azkoitia pilota saileko entrenatzaileak eramango du. Reyesek Bergarako pilota harrobiari eskainitako lana eta emandako laguntza goraiatu nahi izan dute teknikari eta elkarteek. Azken sari hau, plaka oroigarria izango da. Sari guztiak, hilaren 20an, eguena, banatuko dira Kultur Etxean, arratsaldeko 19.00etan.


Berrigara eta Udal Kirol Zerbitzuak, urtero, herriko kirol elkarteek eta kirolariek denboraldian zehar egindako lana azpimarratu eta omendu nahian, kirol sariak antolatzen dituzte.



Mikel Osoro
24 urte.
BKEko futbolaria.
6 urte BKE.
Preferenteko kapitaina.



Gorka Fernandez
18 urte.
Beti-Busti Elkarte.
Espainiako Kopan
2. eta 3. postuak.



Ane M. Fernandez
15 urte.
Ariznoa Gimnasia
Elkarte. 5. postua
Espainiako txapelketan.



I. Muruamendiaraz
21 urte.
BKEko pilotaria.
Munduko Txapelkun
esku binaka.



Oier Tola
13 urte.
Shotokan Elkarte.
Euskadiko eskolarretarako sailkatua.




Andoni Calles
23 urte.
Atletiko Zaleak.
Atletismoko
entrenatzailea.



Edurne Zabaleta
34 urte.
Xake Elkarte.
Nazio mailako xake
epailea.



Andoitz Gallastegi
20 urte.
Waterpolo Taldea.
11 urte igerian eta
5 wateerpolo taldean.



Aurelio Morillas
44 urte.
Bergarako Lagunak.
Futbito txapelketako
beteranoena.



Rebeca Fernandez
14 urte.
Batminton Elkarte.
Laugarren Euskadiko
txapelketan.



Ander Agirre
18 urte.
Lokatza Taldea.
Uzarragan txapelkun.
Arraten hirugarren.



Andoni Gonzalez
15 urte.
BKEko saskibaloijokalaria.
Etorkizun handienekoa.



Rachel Olabarria
14 urte.
Bergarako Lagunak
(futbito). Euskadi eta
Gipuzkoako selekzioan.



Eneritz Muguruza
16 urte.
Igeri Elkarte.
Espainiako txapelketarako sailkatua.



Kirol elkarte onena **BKEko futbol saila**

BKEko futbol sailean zazpi dira une honetan jokatzen ari diren taldeak. Hauen artean, preferente taldea nabarmendu da, bi urtetan zehar, bi maila gorago egotera iritsi daitekeelako. Iaz, Regional mailatik preferentera igo zen eta orain preferentetik 3. mailara igo daiteke. Bergarak hirugarren mailan jokatu zuen azken aldia duela hamabost

urte izan zen. Guztira lau denboraldi iraun zituen Bergarak hirugarren mailan. Arrasateren kontrako partidu bat galdu ostean mailaz jeitsi eta harrez gero ez du igotzerik izan.

Bestalde, jubenilek egindako lana azpimarratu egin behar da. Egindako denboraldi onek, sailkapeneko bigarren postuan izatera eramantuzte. Liderretik puntu bakarrera. Gainontzeko taldeei dagokienez, gazteak gero eta indartsuago dabilta eta neska ere azkenaldian aurreko postuetan dabilta.

Sari berezia **Reyes Azkoitia**

Reyes Azkoitia betidanik izan da pilota zalea, emakume gutxiren zaletasuna izan bada ere. Txapelketak jokatu ez arren, hainbat erakustaldi egin izan ditu Bergara, Arrasate eta beste-lako herrietan.

Semearen eraginez hasi zen BKEko pilota sailean lanean. Jende falta zegoela eta, pilota sailean murgildu eta entrenamendu lanetan hasi zen duela 15 urte inguru. Harrez gero, entrenatzaile izan da, senior, junior, afizionatu eta kadete mailatan eta horretaz gain,



Bergara Hiria txapelketa eta pilotarien partiduak koordinatzen ditu, beterekoen arteko beste txapelketa batzuen artean. Une honetan, Gutierrezekin batera, pilota saileko arduraduna da. Berak egindako lanak, Bergaran maila handiko pilotariak izatera lagundu du.

Medikuntza zerbitzua martxan astelehenetik aurrera

Bergarako udalaren babesean, kirol medikuntza zerbitzua datorren astelehenetik martxan. Zerbitzuak ondorengo lanak egingo ditu besteak beste, oinarriko mediku-azterketak, mediku azterketa osoak eta esfortzu frogak,

lesioen tratamendua, dietak, entrenamenduen kontrola eta abar. Azterketa bakoitzaren prezioak ezberdinak dira 18 urte gorakoentzat eta beherakoentzat. Zerbitzu hauek, Bergarako Biltegian ezarritako bulegoan izango dira.

Bergararrak herriko pilota txapelketan

Une honetan, BKEko 3 pilotari ditugu Bergara Hiria jokatzen. Promesetan, Ander Mugaruzak Mendiluzerekin batera lehen partidua irabazi zuen. Murua-mendiarazek, Inurategi bikote duela, 22-10 irabazi zuen eta finalerdiak jokatzeke sailkatu da. Txafe pilotaria profesionala hasi dela eta, Samaniego bergararrak hartu du bere lekua eta Iparragirrekin batera, finalerdiak jokatzeke sailkatu da ere. Azken bi bikote hauek, elkarren kontra jokatu beharko dute, multzoko lehena zein den erabakitzeke.

Arku tiraketa domekan Miguel Altunan

Legazpiko Luma Elkarteak, Bergarako udalaren laguntzaz, lehen Penteskostes arku lehiaketa antolatu du domekan. Arkulari federatuen lehiaketa, M. Altuna institutuan izango da, goizeko 09:30etatik aurrera.

Bizikleta irteera

Txirrindulari Elkarteak iganderako mendi bizikleta irteera antolatu du. Ibilbidea: Bergara, Arrasate, Kruzeta, Arlaban eta Bergara. Irteera goizeko 8:30etan Beheko Estazioan.

ESKOLA KIROLA

Karteldegia

ATLETISMOA

ALEBIN MAILA

11:30: 4x60 (erreleboak), pisu jaurtiketa eta 200 metro Zapatuan, Agorrosinen

ARETO FUTBOLA

18:00: Mogel B-M. Lagundia Eguakitzta, La Sallen (Eibar)

FUTBOLA

BENJAMIN MAILA

09:15: Aranzadi 4- San Martin B
12:00: Aranzadi 2-Antzuola A
12:00: M. Lagundia E-San Martin A Zapatuan, Miguel Altuna institutua
10:15: Aranzadi 1-M. Lagundia A
10:15: Aranzadi 5-M. Lagundia B
11:00: Aranzadi 3-Aranzadi 6 Zapatuan, Ipintzan
INFANTIL MAILA

09:00: M Lagundia-Institutua
Nesken Gipuzkoako Txapelketa
11:00: Aranzadi-Txantxiku 1.A Zapatuan, Ipintzan

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Pisua salgai Aranerrekana. 943 76 28 07.

Elorregi. 943 76 07 47.

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Martoko. 943 76 37 21.

Pisua salgai Zumarragan. 943 76 23 84.

Soraluze. Berriztua. Amueblatua. 943 75 23 98.

Bolu. 943 76 24 85.

Etxe berriztua Urteagan, 130 m². 943 76 08 79 (19:00etatik aurrera).

Pisua salgai Masterrekana. 943 76 47 13.

Antzuolan, beheko azuloan. 943 76 60 20.

Etxe berriztua Zubiaurren. 943 76 11 13.

EROSI

Bergaran etxea erosiko nuke. 617 072 595.

Toki-Eder inguruan pisua erosiko genuke.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

ERRENTAN HARTZEKO

Nekazal lursaila (2.000 m²koa) alokairuan hartuko nuke. 943 76 26 79

4. LANA

ESKAITZAK

Etzeko lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etzeko lanak. 943 76 46 07.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Astebukaeretan tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak goizez haurrak zaindu edo dendan lanak. 943 76 53 71 (Maite).

Emakumeak etzeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Emakume esperientziadunak dendan lan egingo luke. 943 76 07 69.

Udan, umeak zaindu, etxeak garbitu edo tabernari lanak. 943 76 39 68 (Aitziber).

943 76 04 88 (gauze).

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Artzamentin. 943 76 06 25.

Garajea salgai Ibargarain. 943 15 15 81.

Aranerrekana. 943 76 28 07.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Garajea salgai Kruz Gailastegin. 943 76 27 61.

Garajea salgai B. Laskurainen. 943 76 18 85.

Garajea salgai Zubiaurren. 943 76 08 89.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 23 53.

Garajea salgai Zubiaurren. 943 76 23 53.

Ibargarai. 943 76 44 25.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Poligonon. 943 76 32 58.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke. 943 76 08 53.

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71 / 76 37 80 (gauze).


Lokala San Pedron. 943 76 10 39.

ARDATZA

Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93



Droga

dela eta arazoak dituen norbait ezagutzen baduzu dei iezaguzu!

91 855 03 86



Gozogintzan aintzindari.

ESKAERA

Emakume euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. Deitu 943 76 44 54 telefonora.

Senar-emazte edade-tuak zaintzeko pertsona behar da. Deitu 629 26 39 45 telefonora.

Umeak zaindu eta etxeko lanetarako neska behar da. 943 76 52 71.

Arratsaldetan umea zaintzeko pertsona behar da. 610 39 36 89 (Beatriz, gaeuz).

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Ingeles filologian lizen-tziatuak klaseak ematen ditu. 943 76 30 28.

OHO eta BBB klaseak. Deitu 943 76 33 26 telefonora.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

OHOko klaseak. Deitu 943 76 37 94 telefonora.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Suzuki GSX 750 motorra salgai. Prezio ona. 610 20 82 78.

Ford Orion 1.6 Ghia. Aire egokitua. Kilometro gutxiarekin. 943 76 23 12.

Citroen C25 furgoneta, bolumen handikoa. 943 76 28 93 (gaeuz).

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Fiat Tipo 1.4 (NA-Z). Prezio ona. 943 76 51 63 (Nere).

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

Aprillia Klimber motorra salgai. 943 76 07 28.

Ford Sierra 2.3 diesela. 617 20 66 29.

Yamaha 600 Diversion motorra. 943 76 08 83.

Naus 485 karabana, 5 plaza. 943 76 44 07.

GAC motorra (50 cc.). 943 76 49 30 (Igor).

Ehiztariendako Lada Niva 4x4 zuria. 48.000 km. 680.000 pezeta. 943 73 15 57 (Beñat).

Suzuki GSX 750 F motorra prezio onean salgai. 610 20 82 78.

Renault 19 TXE 1.7. Aire egokitua. 250.000 pezeta. 943 76 19 56.

7. ANIMALIAK

SALDU

Bi hilabate eta erdiko artzai txakurra. Arra. 943 78 34 79 (Felix).

OPARITU

Bi urteko kanario emea opari. 943 76 34 19.

8. DENETARIK

SALDU

Berogailua-akumuladore salgai. 943 76 44 19.

Mendiko bizikleta. 943 76 10 80.

Bi eskopeta salgai, paralela bata eta 5 tirokoa bestea. Sacabe markakoak. 943 76 37 25.

Logela-altzariak. Egoera onean. 943 76 06 78 (21:00etatik aurrera).

Altzari klasikoak salgai. 943 76 17 08.

Kitarra espainola. Berria. 943 76 59 94 (gaeuz).

Dina pisu elektronikoa (5 kg.) eta erlojuko beste pisu bat (25 kg.) salgai. 943 76 17 24.

Bigarren eskuko ordenagailuak. 943 76 28 68/12 52 (21:00-22:00).

Sukaldeko Fagor kanpaia berria prezio onean. 943 76 47 82.

Kotxe kapota, moisesa eta haurrentzako aukia salgai. 943 76 19 09 (gaeuz).

GALDU


Urrezko pultsera galdu dut. Sarituko da. Deitu 943 76 54 84 telefonora.

Korbatako orratz galdua Santa Marina inguruan, G.B. inzialekin. 943 76 23 24.

AURKITU

Zilarrezko pultsera aurkitu nuen Barrenkalean. Deitu 943 76 15 36 telefonora.

Betaurreko graduatuak topatu ditut Artzamedin. 943 76 50 74.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

NEURKETA LANGILEA
Deba Behea. 19628/2

ARKITEKTOA
Bilbo. 17476/4

ORDENAGAILUEN MANTENIMENDURAKO TEKNIKARIA
Deba Garaia. 18372/4

LH II. KONTULARIA
Gasteiz. 19043/2

BEIRA LANGILEA
Arabar Lautada. 19064/2

ZERBITZARIA (emakumezkoa)
Plentzia. 19156/3

ZERBITZARIA (emakumezkoa/gizonezkoa)
Ibai Ezkerraldea. 19176/1

TORNULARIA
Etxebarri. 19274/3

DOITZAILEAK
Ibai ezkerraldea. 19325/2

LH II ELEKTRONIKOA
Bilbo. 19335/1

GALDARAGILEAK
Ibai ezkerraldea. 19386/1

HOSTALARITZARAKO KOMERTZIALA
Arratia. 19391/1

KOMERTZIALA
Arabar Lautada. 19416/4

KOMERTZIALA
Bilbo. 19421/4

KOMERTZIALA
Donostia. 19424/3

KALITATE SISTEMA INPLANTATZeko TEKNIKARIA
Plentzia. 19484/4

LANGILEA
Zamudio. 19499/3

KOMERTZIALAK, 2
Bilbo. 19550/3

SUKALDARIA
Markina. 19580/1


TEAILERREKO ARDURADUNA
Deba Behea. 19587/1

CNC TORNULARIA
Urola. 18105/4

ERDUGILE-PLAKA JARTZAILEA
Ibai ezkerraldea. 18114/4

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakizetan 9:00etatik 13:00era. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Kizkur



Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

Ganbara TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

MUJIKA Jantzidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

IBAN DEL CAMPO



argazki-erakusketa

NAHIKARI taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

Titanic-en moldaketa Orkestraren eskutik

Aritzetak, Xamatzek eta Eresargi haurren abesbatzak ere hartuko dute parte

Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Aritzeta abesbatzak, Xamatz dantza taldeak eta Billabonako Eresargi haurren abesbatzak "Titanic" pelikula arrakastatsuaeren soinu bandaren moldaketa eskainiko dute datozen eguakitzean, jaietako lehen egunean, Udal Pilotalekuan.

"Titanic" lanaren moldaketak hamar zati ditu eta sarrerarekin batera banatuko den esku programan era grafikoan azalduko da zati bakoitza. Titanic itsasuntziaren ibilbidea, Southampton-etik irtetzen denetik izotz zatitzarra jo eta hondoratzen den arte, musikaren bitartez kontatuko zaigu. "Musika dramatikoak da eta ikusleei Titanic-en gora berak sentiaraziko dizkie. Bestalde, erritmo zeltiarrek eta ahots eta instrumentu soinuek oso erakargarria egiten dute obra".

Bakarleri lanetan Gasteizko Alai abesbatzako Izaskun Gomez arituko da



Musika Eskolaren X. urteurrena ospatzeko, "El rey Leon" en moldaketa egin zeneko irudia.

eta Celine Dion-en "My heart will go on" ospetsua kantatuko du. Sarrerak 1.000 pezetan jarri dira salgai Lazkannon, Ariznoan, Frontoiko tabernan eta Kultur Etxean; gazteentzat 750 pezetan

salduko dira. Emanaldi egunean, 1.300 pezetaren truke eskuratu ahal izango dira pilotalekuko takilan gaueko 9etatik aurrera. Kontzertua gaueko 11etarako iragarri da.



Joseba Tapiak alaitutako erromerian giro polita izan zen.

Kultur Errotako bi emanaldi eder

Jardunek antolatutako Kultur Errotako bi emanaldi izan ziren joan zen eguakitzean Bergaran. Alde bateatik, egunean, Joseba Tapiaren erromeria eta, bestetik, eguakitzean Amaia Zubiriaren kantaldia eta May Gorostiagaren antzerki emanaldia. Joseba Tapiak alaitutako erromerian giro polita sortu zen Xamatz taldeko dantzariak eskerrak, gainon-

tzeko ikusleak dantzarako lotsati samar agertu baitziren. Bestalde, May Gorostiaga eta Amaia Zubiriaren emanaldia ikustera jende gutxi agertu zen eguakitzean Zabalotegiko aretora. Halere, bildutako apurrak oso gustora igaro zuten gaua. Amaia Zubiriak, bere semearen laguntzaz, jende aurrean kantatzen oso ohitua dagoela erakutsi zuen.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

GASTON Y DANIELA

Oihal batek aldatzen du dena

BERGARA

Kruz Gallastegi 3,

☎ 943 76 07 37

kronika

Bergarako Orfeoiaren musikal arrakastatsua

Oliver! musikalaren euskarazko bertsio bikaina anzteztu du Bergarako Orfeoiak

Oliver! komedia musikalaren euskarazko bertsioaren estreinaldi bikaina egin zuen Bergarako Orfeoiak joan zen zapatuan. Aretoa bete egin zen eta bildutakoak ikuskizunarekin gozatu egin zuten.

Mariaren Lagundiaren edifizio berriko sarrerara iristeaz bat, joan zen mendeko Londresen ginela zirudien. Arlo guztiak zaindu dituzte Orfeoiak eta giro berezia sortzen ahalegindu dira; detaile txikiak ere zaindu dira: areto-ira igotzeko eskaileretan, garaiko Times egunkariaren tipografiaz inprimitutako *Oliver!!! Egunkaria* esku programa bantzen; goardiak dena behar den bezala doala zaintzen; neskameak intsigniak eta boligrafoak saltzen...

Bergarako Orfeoiak kide guztiei eta muntai honen inguruan murgildu diren denei sekulako lana egin dutela aitortu behar zaie. Ez hori bakarrik, gutxi batzuk izan ezik, espektakuluan parte hartzen duten gehienak afizionatuak direla kontutan hartzen badugu, benetan lan bikaina egin dutela esan behar da. Eta, azkenik, ez dezagun ahaztu interpretazioaren alorrean estraineko lana izan da gehienentzat eta listoa oso goian jarri dutela esan behar dela.

Valen Moñux eszena zuendariak joan zen asteko BERRIGARAN adierazten zuen Musika Eskolaren X. urteurrena ospatzeko antolatutako *Miserableak* ikuskizuna gaitzera oso zaila izango zela, orduan sorpresa efektoa euren alde izan zutelako. Arrazoiak zuen hein handi batean. Halere, ordutik bost urte pasa dira eta, tartean, *San Martinen Es-*

tampak ere anzteztu dituzte *Oliver!* musikalaren parte hartu duten gehienek. Antzematen zaie, beraz, taula gainean ibiltzen ohituagoak daudela.

Oliver! eta *Miserableak* familia musikal berekoak dira. *Oliver!*, beharbada, luzea eta astun samarra egiten da azkenerrako. Halere, oraingoan *Miserableak*-en baino maila hobea erakutsi dute kantari-aktore eta musikariek. Izenik aipatzea ez du merezi denak egon baitziren ondo, baina bakarlariek eta paper protagonista dutenek aho zabalik laga gintuzten.


Bestalde, une dramatikoengatik baino, zati komikoengatik nabarmentzen da *Oliver!*. Momentu hunkigarriak badaude, *Bill Sikes* gaizkileak (Karlos Etxaniz), *Nancy* (Argiñe Agirrezabal) hiltzen dueneko, esaterako. Baina, *Bumble* (Joseba Iparragirre) jaunaren

eta *Corney alargunaren* (Isabel Juldain) arteko eta *Sowberry* senar-emazteen (Rafa Moñux eta Blanca Narbaiza) arteko pasadizoak genialak dira; *Faginek* (Valen Moñux) eta *Crimwig* doktoreak (Iñigo Alberdi) ere lan komiko ederra egiten dute. Arlo honetan, Andoni Etxeberriak pobreen laguntzailer konkordunaren paperean egiten duen lana ereaipatzekoa da (Martin Feldman-ek Frankenstein gaztetxoan egindakoa gogorarazten du). Azpimarratzekoa da, era berean, *Miserableak* ikuskizunean bezala, haurrek egindako lan bikaina, eta guztien artean protagonisten: *Oliverena* (Julen Iñarra) eta *Tunanterena* (Aritz Ernabide). Dantzariak eta Ariznoako gimnastek egindako koreografiak eta Kukumakoek prestatutako eszenografia ikusgarriak ere aipamen berezia merezi dute. **B**



Tunante eta Oliver, Orfeoiaren komedia musikalaren protagonistetako bi.

J. A. UNZURRUNZAGA



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerrek 32 behea. BERGARA. Telefona: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Proiektuak. 2. Ahari zikiratu. Burdinola. 3. Baztango herria. Bi kontsonante. 4. Zein lekutara. Hostoa. 5. Jatorri atzikia. Eako biztanle. Musika nota. 6. Lehenengoa. 1996an. Guraso arra. 7. Osagile. 8. Behi-zaindari. Momentuak. 9. Neoia. Zango atala. Suari dario. 10. Euskal Herrian jardun zuen talde parafaxista. Barazki mota. Nitrogenoa.


Goitik behera

1. Ezin daitekeenaren nolakotasuna. 2. Eguratsa. Nirea. 3. Euskal bandera. Bokala. 4. Interjekzioa. Diosala hitza. 5. Jardun. Gabezia. Berrogeita bederatz. 6. Ezkaratza. Eredu txiki. 7. Mila. Uretako bizidunak. 8. Bokal errepikatua. Röntgen. Bilo. Bokala. 9. Berriak, notiziak. 10. Bizkaieraz, katea. Kenketaren ikurraren izen.

Soluzioa

9. Albitseak. 10. Katala. Ken. 7. M. Arrainak. 8. Oa. R. Ite. A. 5. Ari. Eza. Il. 6. Sotoa. Gune. 3. Iurrina. A. 4. Tiral. Adio. 1. Ezintasuna. 2. Giroa. Enea. Goitik behera. Leka. N. 9. Ne. Oina. Ke. 10. AAA. 7. Sendagile. 8. Unai. Uneak. 5. Tan. Ear. Si. 6. A. Iaz. Aita. 3. Iurta. Bt. 4. Nora. Orria. 1. Egitasmoak. 2. Zikro. Oia. Ezker eskuma.

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereizabar

Zein da baserri honen izena?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak Agirrebeña jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Ane Morillasentzat** izan da: Toki-Ona bodegoian bi lagunendako afaria. Zorionak Aneri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **"Ni la busques ni la temas"** Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____

Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Agirrebeña
JATETXEA

Ibarra kalea 2, BERGARA
Telefonoa. 943 76 20 38

**Oiñ dala hiru urte alargundu zanetik Oilagorra ehiza eta arrantza elkarteko bazkidia da. Bertako lehenengo emakume bazkidia izan zan eta ahal dabenian, as-
tean behin-edo, lagunekin joaten da soziedadera. Hiru seme-alaba dauzka.**

Nolatan Oilagorrako bazkidia?

Nire gizona be soziua zan eta alargundu nintzanean jarraitzeko eskatu neban.

Lehenengo emakume bazkidia...

Bai eta esan behar dot guztiak oso ondo portatu diela nirekin.

Zuzendaritzan kargurik badaukazu?

Bokala naiz eta hilean behin biltzen gara. Sukaldeko lana be nik egiten dot.

Ehiztaria ala arrantzalia?

Ehiztaria esango dot baina txoriei beldurra dotset.

Eta platerian, arraina ala okela?

Arraina.

Janaririk gustokuena?

Bakailua pil-pil.

Eta ondoen gertatzen dozuna?

Basurdia igual...

Jan ezin dozun beste bat?

Saltxitxak, higuina ematen doste.

Zein jatetxetan bazkalduko ziñuke gustora?

Arzak-enian.

Eta telebistan, Argiñano, Arzak ala Subijana?

Subijana, gustatzen jat zela prestatzen dittuan gauzak.

Sukaldaritza zaharra ala berrixa?

Zaharra.

Postre bat?

Ez naiz gozozalia... Frutia nahixago.

Txikitan zer izatia nahi ziñuan?

Zapatadendia eukitzea nahi neban.

Joxepi Larrañaga

Denbora librean, zer?

Erropak josi.

Urtaro bat?

Udaberrixa.

Kolore bat?

Urdina asko gustatzen jat.

Mania bat?

Asko dauzkat...

Filme bat?

"Los puentes de Madison".

Aktore bat?

Richard Gere.

Irakurritako azken liburua?

"Flores en la sangre" irakurtzen nago, Gay Courter-ena.

Kirol bat?

Astian bi aldiz yogara joaten naiz.

Egindako azken oparia?

Gauza mordoia, seme-alabei egindako opariak.

Eta jasotako azkena?

Amaren egunean oparitu zosten lorak.

Zerekin jartzen zara sutan?

Gezurrarekin.

Pazkuetan zer egingo dozu?

Egun bi gutxienez Bergaran egon, jaixak asko gustatzen jat eta.

Jaixetako ekitaldirik gustokuena?

Barrakazalia naiz ni... **B**



Kidetasuna indartuz

UDAKO BRIGADAK

Mexiko, Guatemala, Nikaragua, Kuba eta Kolonbia

AURKEZPEN HITZALDIA

Martitzena, maiatzak 18, 19:30etan Bergarako Kultur Etxean.

Hizlariak: K.I.ko partaideak

BESTELAKO INFORMAZIOA (20:00etatik 22:00etara):

BERGARA: 943 76 21 48

BILBO: martitzen eta eguakitzetan. 94 479 07 03

DONOSTIA: eguakitzetan. 943 34 04 04

GASTEIZ: martitzen eta eguenetan. 945 14 93 79

IRUÑA: martitzen eta eguenetan. 948 21 11 73



**KOMITE
INTERNAZIONALISTAK**



Jaunartzea San Pedron, 1943

Joan zen domekan jaunartzeak izan genituen Bergaran. Goiko erretratu, berriz, orain dela 56 urteko jaunartze egunekoa da eta bertan agertzen diren neska-mutilek 12-14 urte bitartean zituzten orduan. Dotrina ondo ikasita eta dotore-dotore joan ziren gaxtetoak elizara. Erretratu 1943ko apirilean aterata dago, San Pedroko eskilaretan. Guztiak identifikatzea ezinezkoa izan bada ere, horra hor euren izenak:

Aurreneko ilaran: Don Jose Maria Azkarate (apaiza), Jacinto Cuadrado, Joxe Iñarra, German Balanzategi, Jose Cruz Iturbe, ezezaguna, Ignacio Mari Basterra, Manolo Larrañaga eta ezezaguna.

Bigarren ilaran: Juanito Garitano, Juanito Muniategi, Juanito Suinaga, Patxi Alberdi, Angel Larrañaga eta Don Eustaqui Azkarate-Askasua (apaiza).

Hirugarren ilaran: Gori Larrañaga, Maria Isabel Garcia, Mari Karmen Bilbao, Edurne

Agirrebeña, Rosarito Larrañaga, Elena Elustondo eta ezezaguna.

Laugarren ilaran: Encarna Irastorza, Pilar Barrutia, Maria Luisa Zabaleta, Maribel Navas, Miren Villar, Amaia Villar, Maria Jesus Lizarralde, Edurne Lazpiur, Mari Karmen Urzelai, ezezagunak, Miren Berasategi eta Mari Angeles Castillo.

Atzean, besteak beste, honako hauek agertzen dira: Beatriz Lazkano, Mendibil, Josefina Agirrebeña, Maria Angeles De la Granja, Florita Alberdi, Maria Luisa Castillo, Itziar Unamuno, Maritxu Ziarsolo, Miren Castañares, Asuntxi Castillo, Elisa Garmendia, Aldaiko Unamuno ahizpak, Maria Luisa Mendibil, Milagros Durana, Consuelo Aiastui, Tere Arrieta, Maritxu Azkarate, Maria Luisa Inziarte, Maria Pilar Zabaleta eta Mari Karmen Garmendia.

Argazkia: Gori Larrañaga

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai 2
943 6 51 65

Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

M
MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25



TORREALDAY

aholkulari-kontsultoreak

Bidekurutzeta 6, 2-ekerra. Bergara. Tf. 943 76 53 80 / 73 20. Faxa: 943 76 55 39
bergara@atctorrealday.com

- ARLO FISKALA
- KONTABILITATEA
- FRANKIZIAK
- ARLO LABORALA
- ASEGURUAK
- AUDITORIAK
- ARLO JUDIZIALA
- FINANTZA ARLOA

Euskal Herrian
okela ona dugu




Informazio gehiago telefono honetan

901 50 55 55*

* Telefono zenbaki hau 1999ko maiatzaren 3tik ekainaren 15era erabil daiteke.

Kalitateko Euskal Labela duen abelgorri okela **osasuntsu, zapoetsu eta naturala.**



EUSKO LABEL



EUROPAKO ELKARTEAREN PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUA

ANTZUOLA

- ▶ MUJIKI HARATEGIA Kalebarren, 1
- ▶ GABILONDO HARATEGIA Kalebarren, 14

BERGARA

- ▶ CARNICERÍA JON LETURIA Pedro Deuna, 24
- ▶ CARNICERÍA URZELAI Ibargray, 16 Bajo

▶ CARNICERÍA ANDRÉS MUJIKI Domingo Irala, 5

BIXAIN HARATEGIA Azoka Plaza Pto., 5-6

SORALUZE-PLACENCIA

JAVIER ALBERDI HARATEGIA Rabal, 24

Labeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur honekin (▶) adierazitako Harategi Baimenduek ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan





Sofa
leku



Sofa
leku



Sofa
leku



Sofa
leku

**ESKAINITZA
BEREZIAK**

Sofa
leku

**HIRU JOKO
LARRUA
OIHALA
3+2**

GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**



Sofa
leku

